

500 pezeta.  
20 libera

# hik hasi

euskal  
heziketarako  
aldizkaria

48

Kuadrillategi  
proiektua  
gaia

Itziar Elorza eta  
Diana Lindsay  
elkarrizketa

Haur-jolasen  
abestien partiturak  
gehigarria

L. S. Vigotsky  
teoriak

2000ko MAIATZA

Argitaratzailea:

# XANGORIN

Zirkuitu Ibilbidea,  
2. Pabilioia. 20.160  
LASARTE-ORIA  
GIPUZKOA.  
Tel: 943/ 37.15.45  
Fax: 943/ 36.10.48  
Posta elektronikoa:  
hikhasi@antza.com

Lege Gordailua: SS-1001/95  
ISSN: 1135-4690

Koordinatzailea:  
Jose Mari Auzmendi

Erredakzio burua:  
Ainhoa Azpiroz

Erredakzio batzordea:  
Itziar Barriola, Mikel Estonba,  
Arantxa Goiburu,  
Mari Karmen Irastorza,  
Kristina Mardaraz,  
Josi Oiarbide, Juanjo Otaño,  
Fito Rodriguez, Maite Saenz,  
Xabier Sarasua eta  
Arantxa Urbe.

Aholkulariak:  
Imanol Agirre, Abel  
Ariznabarreta, Begoña Bilbao,  
Mariam Bilbatua, Xabier Isasi,  
Irene Lopez-Goñi,  
Izaskun Madariaga,  
Kepa Perez Urraza,  
Lore Erriondo,  
Lontxo Oihartzabal eta  
Pruden Sudupe.

Diseinua:  
Zart

Maketazioa, fotomekanika:  
Xangorin.  
Inprimategia:  
ANTZA S.A.L.

Azaleko irudia:  
Itziar Elorza eta Diana Lindsay  
(Ikor Kotx)

Hezkuntza, Unibertsitate eta  
Ikerketa Sailak Onetsia  
2000/V/4

Kopurua: 3.500 ale

5 **editoriala**

6 **kronika**

8 **gaia**

**Kuadrillategi proiektua**

16 **elkarrizketa**

**Itziar Elorza eta Diana Lindsay**

21 **gehigarria**

**Haur-jolasen abestien partiturak**

Xabier Zabala

31 **Esperientziak**

**0-3 urte bitarteko haurren garapen  
psikologikoa**

Kamino Etxague, Iñaki Martinez eta Ana Mazkieran

36 **Berriak**

38 **Teoriak**


**Vigotskiren ekarpena hezkuntzaren  
mundura**

Lontxo Oihartzabal



**hik hasi**ko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke.

**hik hasi**k ez ditu bere gain hartzen laguntzaileek plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.



HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

# hik hasik

## Zure harpidetza

# behar du

## 5.000 pezeta urtean

10 aldizkari eta prezio bereziak topaketetan eta argitaratzen ditugun gainontzeko materialetan

## Zure partehartzea ezinbestekoa zaigu

# harpide zaitez!



**hik hasiren** harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoaz

Izena.....1. Deitura.....  
2. Deitura .....Tel.:.....  
Helbidea .....Posta Kodea.....  
Herria.....Herrialdea.....  
Ikastetxea.....Herria.....  
IFZ .....

Aurrezki Kutxa edo Bankua

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

**HARPIDETZA SARIAK**  
(BEZ barne)

Hego Euskal Herria  
5.000 pezeta  
Ipar Euskal Herria  
200 libera

**hik hasi**

Euskal heziketarako  
aldizkaria  
Industrialdea, 2. Pabilioia  
20.160  
**LASARTE-ORIA.**  
**GIPUZKOA**  
Tel: 943/ 37 15 45  
Faxa: 943/ 36 10 48

e d i t o

r i a l a

U

Urtetan sinestuta eduki gaituzte ikastaroak euskaraz antolatzea edo gai ezberdinetan sakontzea alferrikako lana zela.

Urtetan ustearen itzalpean aritu gara eta ia sinesten hasiak ginen gauza garrantzitsuenak, benetakoak, beste hizkuntzetan entzun-jaso-irakurri behar genituela. Gure etxean eta gure hizkuntzan kalitatezko lanak egin-sortu ezin bagenitu bezala.

Eta horrela, usteak egi eta ohiturak lege bilakatzeko zorian zeudenean, erronka berri bat botatzea otu zitzaion HIK HASIri. Eskarmentuz baitakigu herri honetan ametsak egi nola bilakatzen diren!

Urtetan ahalegin handiak egin ditugu hezkuntza euskalduntzen, ez hala ere desiragarria izango litzatekeen abiadan. Baina ezinbestekotzat jotzen den prestakuntza, eta zer esanik ez hezkuntza esparruan, nekez jaso dezakegu euskaraz.

Ingurura begirada bat ematea besterik ez dago. Uda partean, UEUn salbu, gutxi dira euskaraz ikastaroak jasotzeko aukerak.

Eskaintza kopuruaz gain, hedatuta dagoen baieztapena da euskaraz diren ikastaroek erantzun kaxkarra jasotzen

dutela. Eta bata bestearen arrimoan, bazterrean uzteko zaila bihurtzen ari zen zirkulua osatzen hasia zen.

Hilabetetan hainbat aukera aztertu ondoren HIK HASIk bere eskaintza luzatzea erabaki du hiru egunetan burutuko diren hamaika ikastaroekin eta apustuak dakarren arrisku eta ilusioarekin...

Opor egunak izan arren eta diru kopuru bat suposatu arren, hona hemen uzta: jada 653 lagunek proposamenari eman diote baiezkua, aurreikuspen itxaropentsuenak ere gaingituz. Lehenengo saiakera izanda eta euskaraz, ez dago gaizki, ezta?

Hori ikusita, lau haizetara zabaldu nahi dugu eraikitzeak molde zaharrak puskatzea esan nahi duela sarritan. Molde eta konplexu askorekin bukatu beharra dugu oraindik ere, eta horretarako ausardia, lana eta elkarlana beste biderik ez dago. Eta ondoren, erantzuna itxaron.

Bide batez, hausnarketa bat planteatu nahiko genuke: zergatik ote dute arrakasta gutxi euskaraz eskaintzen diren proposamenak, euskaraz direlako, ez direlako erakargarriak eta beharrei zuzenduta ez daudelako edo proposamen horietara iritsi ahal izateko bide egokiak ipintzen ez direlako?

Bakoitzak atera ditzala bere ondorioak!

*Usteak  
erdia ustel,  
euskal  
hezkuntzak  
giroa epel*



# Berrikuntzak eta aurrerapausoak ikusten dira hainbat arlo eta etapatan

# k r o n



## Hezkuntzako Nazioarteko Foroa ospatu da Dakarren

ONUK eta Munduko Bankuak antolatutako Hezkuntzako Nazioarteko Foroan hainbat erabaki hartu dira mundu osoko haurren hezkuntza bermatua izan dadin. Munduko 183 lurraldetako ordezkariak bildu ziren apirilaren 26 eta 28 bitartean eta *Ekin-tza Markoa* adostu dute. Marko horretan hainbat helburu finkatzen dira *Guztietako hezkuntza* lor dadin: Haur eta Lehen Hezkuntzaren babesa gartzeta 2015. urterako, gazteei ikasketak jarraitzeko aukera bermatzea bizitzari aurre egin ahal izateko, helduei hezkuntza iraunkorra izateko aukera luzatzea, 2000. urtea amaitu baino lehenago hezkuntzan dauden sexuen arteko ezberdintasunak ezabatzea eta hezkuntzaren kalitatea hobetzea, batez ere irakurketa, idazketa, kalkulua eta bizitzan beharrezkoak diren gaitasunei dagokienean.

Helburu horiek lortzeko aurrekon-

turik ez da zehaztu Dakarren, hori lurralde bakoitzaren plan nazionalen zehaztuko baita. Hezkuntza plan horiek bideratzeko dirulaguntzak mota guztietako instituzio publiko eta pribatuetatik, zorrak gutxitzetik eta elkartasunetik irits daitezke. Lurralde bakoitzeko planak bertako arduradunek zehaztu beharko dituzte, baina gizarte zibilari zuzenean eta sistemati-koki kontsulta eginez.

Antolatzaileak pozik agertu dira Dakarreko Foroarekin, eta aurrekoarekin konparatuta aurrerapena suposatzen duela adierazi dute. Hura Jomtien-en (Thailandian) burutu zen 1990an. Oraingo *Ekin-tza Markoa* abiapuntu ontzat hartu dute antolatzaileek eta ONGek. Gauzak asko hobetu daitezkeela eta emaitzak zaindu behar direla azpimarratu dute. Halere, salatu dute Foroan ez dela onartu lurralde guztiek, aberats eta txiroek, BPGren %6 oinarrizko hezkuntzara bideratzea, eta Lehen Hezkuntzako laguntza %2tik %8ra igo-tzea ere ez dutela onartu.

Gaur egun 880 milio analfabeto daude mundu osoan, analfabeto funtzionalak kontu ezinak dira, 125 milioi haur eta adin gutxiko 150 milioi gazte daude eskolaratu gabe, bi herenak neskak direlarik. Horiek ez dituzte ikasketak bukatzen familiak irauteko lanean hasi behar izaten dutelako edo ezkondu egiten direlako.

## Hegoaldeko ikasleen %80,86k euskaraz ikasteko hautua egin du

Datorren ikasturtean eskolaratuko diren hiru urteko ikasleen %80,86k B eta D ereduan ikasiko dute EAEn eta Nafarroan. Araban hiru urteko haurren %57,96 D ereduan aurrematrikulatu da eta %33,25 B ereduan. Bizkaian %77,18 izan da D eredua hautatu duena eta %17,06k B eredua aukeratu du. Gipuzkoan %81,17k ikasiko du D ereduan eta %18,76k Bn. Nafarroan %38,31 izan dira euskara hutsezko aukera egin dutenak. Bestalde, A eredua jaitsi egin da lurralde guztietan. Eredu horretan eskaintako plaza kopuruaren %39,3a baino ez da bete Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan. B ereduan, berriz, plazen %80,6 bete da, eta D ereduan %91,7. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan D ereduko 6.877 plaza eskaini ziren, eta horietatik 6.307 aurrematrikulazioekin bete dira.

Azken 20 urteetako joera mantenduz, euskarazko irakaskuntzaren eskaerak gora egin du aurten ere lurralde guztietan. Joera hori sare publiko zein pribatuan gertatu da. Gainera, datu horiek esanguratsuak dira, normalean eredu batean hasten den ikasleak eredu horretan jarraitzen baitu gerora ere.



“Heldu batek haurrari ipuinak kontatzean hauxe adierazi nahi dio: hark bizi duen mundu horrek, fantasiakoa izanik ere, lehen mailako garrantzia duela” JUAN KRUZ IGERABIDE

# ik a

## Nafarroako Lanbide Heziketa berriak formakuntza eta lanbidea batuko ditu

Iruñeko Julio Caro Baroja institutuko hogeit hamar ikasleek dual izeneko modelo aitzindarian parte hartzeko aukera izango dute, hots, formakuntza eta lanbidea uztartuko dituzte. Zurgintzako ikasle horiek praktikak enpresetan egiteaz gain, enpresako egituretan parte hartuko dute edozein langile bezala. Era berean, kontratuak egingo zaizkie eta 66.000 pezetako soldata kobratuko dute hilerro. Uztailetik iraila bitartean egun osoz jardungo dira enpresan, eta irailetik 2001eko ekaina bitartean bi egunetan joango dira enpresara, eta beste hiru egunetan ikastetxera. Guztira 1.160 ordu egingo dituzte lantegian.

Hezkuntzaren eta enpresaren arteko harremana estutzen duen eredu hau germaniarra da eta arrakastaz garatu da han. Hemen ere formakuntzak behar duen osagarritasuna hartzeko balioko duela uste dute agintariek. Era berean, ikasleen esperientzia ziurtatuta gelditzen dela adierazi dute eta ikastetxeetako curriculumak osatzeko eta moldatzeko balioko dutela. Gauzak horrela, aurrerantzean beste Heziketa Zikloetara ere zabalduko da modelo dual hori.



## 0-3 zikloaren eskaintza publikoa egongo da Nafarroako hainbat herritan

LOGSEk dioena jarraituz, 0-3 eta- parako eredu bat adostu zuten UPN eta PSNk apirilaren erdialdera. Eredu horren arabera, Nafarroako 30 herritan ziklo horren eskaintza publikoa luzatuko dute. Zentroek titularitate munizipala izango dute, eta Gobernuak, udalek eta familiek finantzatuko dituzte. Gobernuaren asmoa 2000/01 ikasturtean hala eskatzen duten udalerrietan eskaintza luzatzea da, eta momentuz 30

udal dira eskaera egin dutenak. Horrek esan nahi du gutxi gorabehera 1.500 ikasle edukiko dutela aukera hori. Hurrengo urteetan eskaintza zabaltzen joanen da, eta 2002/03 ikasturterako Nafarroan osoan ezarria egonen da.

Bitartean, gaur egun dauden gainerako ereduak (haurtzaindegi pribatuak, haur eskola munizipalak...) bere horretan mantenduko dira azken arautzearen ondoren etorriko diren aldaketan zain.

Gai horren inguruan bere iritzia azaldu du EILAS sindikatuak. 0-3 zikloa garatu eta arautu beharra dagoela adierazi du, baina seriotasunez eta zuzentasunez, bestela, hartutako irtenbideak okerrak izateko arriskua baitago.

Sindikatuaren iritziz, 0-3 zikloa bere osotasunean ulertu behar da eta Haur Hezkuntzari lotua, ez Lehen Hezkuntzari. Bigarren puntu bezala aipatu du adin horretako haurrak ezin direla edozein lekutan eskolaratu, 1004 Erret Dekretuak ezartzen dituen baldintzak betetzen dituzten zentrotan baizik. Eta azkenik, zein irakasle mota behar den eta nolako prestakuntza eduki behar duen argitu behar dela dio.

Hori guztia dela eta, EILASek hausnarketa sakonerako eta eztabaida zabal baterako deia egiten du etapa horri irtenbidea emateko.

GAIA

# Kuadrillategi



**Pello JAUREGI**  
Pedagogoa

**K**UADRILLATEGI  
Lasarte-Oria udalerrian  
1997ko irailetik  
2000ko ekainera 14-20  
urte bitarteko gazte  
koadrilak euskaraz bizitzeko  
helburuz burutzen ari den  
ekintza-ikerketa proiektua  
duzue. Ttakun Euskara  
Elkartearen, Muntteri AEK  
Euskaltegiaren eta Udaleko  
Euskara Zerbitzuaren  
ekimen komuna izan da.  
Bost dinamizatzaile-  
ikerlariren esku egon da  
proiektuaren ardura  
teknikoa eta hainbat  
lanetan borondatezko  
laguntzaileak izan dituzte  
aldamenean.

Proiektua zortzi koadrila euskaldunekin eta sei koadrila mistoekin abiatu zen, haiekin hitzarmena egin ostean. Koadrila euskalduna kide guztiak euskaldunak eta euskaraz egiteko ohitura duen koadrila da. Bestalde, koadrila mistoa euskaldunak, erdal elebidunak eta erdaldunak proportzio ezberdinetan dituen eta erdaraz egiteko ohitura duen koadrila da.

Koadrila bakoitzarekin dinamizatzaile-

# Proiektua

le-ikerlari bana aritu da. Lanean hiru baliabide erabili dira: eskolak, balantze saioak eta ekintzak. Baliabide bakoitzaren proportzioa eta intentsitatea koadrila bakoitzaren hizkuntz egoerara egokitu da.

Eskolek erdal elebidunen hizkuntz gaitasuna hobetzea izan dute egiteko nagusia. Asteaz zortzi eskola ordu gutxienez. Eskolak "lagunarte bat, ikastalde bat" irizpideari eutsiz antolatuta dira.

Metodologiari dagokionez, gramatika edo hizkuntz unitateen lanketa sistematikoa baino gehiago komunikazioaren praktikan oinarritu gara, alegia mezuak ulertu eta mezu ulergarriak ekoiztean. Hizkuntz unitate zehatzen lanketa noiz edo noiz egin bada ere, komunikazioaren praktikarekin alderatuta oso proportzio txikian burutu da.

Ikuspegi metodologiko honek, besteak beste, hizkuntz gaitasun ezberdineko kideak aldi berean eta gune berean aritzea ahalbidertzen du. Lagunarte bereko euskaldunak eta erdal elebidunak batera euskaraz komunikatzen ari direla honako inertzia hauek sortzen dira:

1) Erdal elebidunek berez hobetzen

Giza baliabideak	Baliabide materialak
Koadrila euskaldunak	Eskolak
Koadrila mistoak	Balantzeak
Dinamizatzailak	Ekintzak

dute euren hizkuntz gaitasuna.

2) Euskaldunek hizkuntza modu estrategikoan erabiltzeko gaitasuna (laguntzeko funtzioa) garatzen dute.

3) Batzuen eta besteen artean euskaraz egiteko ohitura finkatuz doa.

Komunikazioaren praktikan oinarri-

tuta, eskolak kalean ematen den hizkuntza eskuratzeko berezko mekanismoa aplikatu du. Hala eginda, kalea eta eskola, eskola eta kalea binomioaren arteko aldea bere espresiorik txikienera eraman nahi izan dugu, testuinguru batetik besterako pasabidea ahalik eta berezkoena, errazena eta emankorra izan zedin.

Balantze saioak direla eta, batez beste, hilabeteen behin burutu dira lagunarte mistoekin. Epe luzeagotan, berriz, lagunarte euskaldunekin.

Lagunarte mistoei dagokionez, kideen artean euskaraz komunikatzeko praktikari buruzko ebaluazio saioak izan dira. Esate baterako, aurrerapenez ohartu, zailtasunak azaldu, irtenbideak bilatu, eta talde motibazioari neurria hartu. Hizkuntz berriaz hitz egitea, ohiko bihurtu arte, egoera arrotza eta behartu samarra da, eta kideen harremanetan balizko gatazka-iturburua. Balantze saioen bidez, balizko gatazkak onbidertu nahi izan ditugu, bai eta lagunarteei bere-berea den prozesuaren gaineko kontrola eman ere.

Lagunarte euskaldunei dagokionez, balantze saioek bestelako mintzagaia izan dute. Beren laguntzaile funtzioari lotutakoa hain zuzen ere: lagunarte mistoekiko harremanaren intentsitatea, erdal elebidunekiko hizkuntz jokaera, eta laguntza funtzioa hobetzeko iniziatibak.

Balantze saioetan proiektuaren ezauzgarri handienetako bat agertzen da, hau da, bi alderen arteko hitzarmena edo negoziazioa izatea. Lagunartea dugu alde bat, eta proiektua (dinamizatzailaren bidez ordezkaturia) bestea. Proiektuaren hasieran bi alderen arteko hitzarmena sinatu ondoren, hitzartutakoaren bilakalerari buruzko ebaluazioa egiteko funtzioa betetzen dute balantze saioek. Guztiaren atzean, bi uste daude: bata bi

aldeak helburuarekin (proiektuaren helburuekin, alegia) bat datozela, eta bestea alde batek (lagunarteak) beste aldearen (proiektuaren dinamizatzailaren) laguntza teknikoaren beharra duela. Dinamizatzailak, adituaren funtzioa betetz, egoeraren diagnostikoa egin eta balizko irtenbideen azterketa burutu ondoren, horiek taldearen aztergai jarriko ditu taldeak bere iritzia eman dezan. Erabakiek bi aldeen oniritziak beharko dituzte.

Ekintzak ditugu hirugarren baliabide materiala. Kulturgairen bat edo motibo ludikoren baten aitzakiaz antolaturiko irteerak, tailerrak, eta emanaldiak izan dira. Kuadrillategiren adierazpen osoa izan da, bertara bildu baitira proiektuan parte hartu izan duten lagunarte guztiak, euskaldunak bezala mistoak ere.

Harremanak berez sortzen eta trinkotzen joan zitezenez utzi beharrean, erritmoak bizkortzeko egoerak probokatzen jardun dute dinamizatzailak, hala nola: koadrila ezberdinetako kideak lan taldeetan bilduz, gazteak nahasteko jokoak eginez, ingurune ezberdinekoen artean hitzezko harremana eta gorputz ukipekin izateko ariketak burutuz... Betiere, hasierako zehaztugabeko egoerak ("bai ongi da horiek ezagutzea, baina a ze lotsa!") argitzen joan eta kide ezberdinen arteko konplizitate eta hurbiltasuna sortzeko bidean.

Koadrilen arteko gunearen erakargarritasun indarrari eustea izan dugu beste erronketako bat. Gune batean gustura parte hartzeko bi baldintza behar dira gutxienez: 1) aurkituko den jendea gustukoa izatea (denak ez badira ere) eta 2) aktibitateek norberaren interesguneak jasotzea. Ekintza egitasmoa biltzarretan negoziatuz lortu da interesgune komunak aurkitzea eta gunearen bizitasunari eustea.

Koadrila euskaldunekin egindako



hitzarmenek honako puntu hauek jaso dituzte:

- 1) Ekintzetan parte hartzea.
- 2) Noizean behin balantze saioak egitea.
- 3) Proiektuaren dinamizatzaileek hala eskatutakoan, koadrila mistoekin hainbat eskola saiotan parte hartzea.

Koadrila mistoen kasuan baliabideen intentsitatea aurrekoena baino handiagoa izan da. Hona hemen eskakizun estandarra:

1) Egunero bi orduko eskola saioak erdal ebebidunentzat. Astean behin gutxienez, koadrilako euskaldunek, aurrekoekin batera, eskola saio batean parte hartuko dute. Koadrilan euskaldunik izan ezean, koadrila euskaldunetako kideren batzuek hartuko dute parte.

2) Hilabetean behin balantze saioak egitea.

3) Ekintzetan parte hartzea.

Oro har, koadrila guztiek, mistoek bereziki, dinamizatzaile bana izan dute. Dinamizatzaileek koadrila mistoekin buruturiko funtzioak honako hauek izan dira:

- 1) Eskoletan irakasle
- 2) Balantze saioetan psikologo
- 3) Ekintzetan begirale
- 4) Proiektuaren ikerketa izaerari erreparatuta, ikerlari

Hitz gutxitan esanda, Kuadrillategiren uste nagusia da, hizkuntz jokaeran aldaketak eragiteko harreman sare osoaren gainean esku hartu behar dela. Horregatik aukeratu dira lagunarteak lan-unitate bezala. Funtsean, Kuadrillategik, laguntzarako ingurunea prestatzen du. Laguntzak lau adierazpide ditu:

1) Lagun euskaldunek lagun ez-euskaldunak laguntzen dituzte hizkuntz gaitasuna hobez.

2) Koadrila euskaldunek koadrila mistoak laguntzen dituzte hizkuntz jokaera finkaz.

3) Dinamizatzaileek koadrila mistoak laguntzen dituzte prozesuari lotutako oztupoak gainditzen.

4) Dinamizatzaileek koadrila euskaldunak laguntzen dituzte aukera sozialak areagotuz euskaldun gisa bizi daitezela.

## “Gazteek euskararen erabileran aurrerapausuak emango badituzte, koadrilekin egin behar da lan”

**D**uela bi urte eta erdi hasi zen Kuadrillategi proiektuaren ibilbidea Lasarte-Orian. Gazte koadrilen artean euskararen erabilera sustatzea xedetzat duen esperientzia da, hots, gazteen artean hizkuntz ohitura berria sortzea da helburua. Horretarako, abiapuntua eta oinarria gazte taldeak dira, eta horixe da, hain zuzen ere, proiektuaren berezitasuna: koadrilekin egiten dute lan, eta ez norbanakoarekin.

Kuadrillategi proiektuaren gidariak eta ikerlariak lau dira momentu honetan: Pello Jauregi, Axier Huegun, Diego Egizabal eta Susana Martinez. Orain arteko ibilbidea zuzenean bizi izan dute eta esperientzia horren gorebeherak izan ditugu hizpide.

**Noiz eta nola hasi zineten Kuadrillategi proiektuarekin?**

**Axier Huegun.**- Orain dela hiru urte hasi ginen. Pello Lasarte-Oriara etorri zen proiektuarekin eta ideia esplikatzen zigun. Berezko taldeak edo koadrilakeuskalduntzeko proiektu proposamen batekin etorri zen. Gure herrian abian jartzeko moduko esperientzia zen eta horri ekin genion. Bultzatzaileak Muntteri



**Kuadrillategi proiektuko gidariak, Susana Martinez, Diego Egizabal, Axier Huegun eta Pello Jauregi.**

AEK euskaltegia, Ttakun kultur elkarte eta Udaleko Euskara batzordea izan ziren eta dira.

**Pello, zuk egin zenuen proiektu hau koadrilan oinarritzen da, hau da, taldean, eta ez norbakoan, orain arteko gehienak bezala. Zer dela-eta aukeratu duzu koadrila?**

**Pello.-** Hizkuntza, azken finean, jokaera bat da, jokaera ohitura da, eta ohitura, normalean, ez da bakarrik sortzen. Hizkuntz jokaera ez da norberak finkatzen duen zerbait, baizik eta talde batean sortzen den kontua. Nik zaletasuna daukat, zuk gogoia daukazu, hark... denen artean sortzen den jokaera dugu. Jokaera horiek errepikatzearekin azkenean ohitura bihurtzen dira. Beraz, ohitura eta jokaera aldatuko badira, historia horretan parte hartzen duten kide guztiek egin behar dute lan beste esperientzia bat abian jartzeko eta beste ohitura batzuk sortzeko.

Hizkuntz ohituren aldaketa zerbait kolektiboa baldin bada, gazteen artean kolektiborik esanguratsuen koadrila da. Batzuetan ez da oso gauza definitua, koadrilak asko

# GAIA Kuadrillategi Proiektua

aldatzen baitira, baina bere indefinizio horretan definitua da, alegia, koadrilak hor daude. Horiekin egin behar da lan; gure ustez, gazteek kalean euskararen erabileran aurrerapausoak emango badituzte, koadrilak hartu behar dira eta horiekin lan egin.

**Koadrilen hizkuntz ohiturak aldatzea da, beraz, ikerketaren helburua?**

**Pello.-** Proiektuaren helburua edo nahia euskararen erabilera kalean, herrian eta giro informaletan bultzatzea da. Izan ere, pentsatzen dugu euskalgintzak asko aurreratu duela alderdi formaletan, irakaskuntzan eta horrelako kasuetan. Baina, gero, jendeak modu informalean hitz egiten duenean, normalean erdarara jotzeko ohitura du.

Gazteen kasuan ere hori gertatzen da. Gazte gehienak B eta D erdue-

"Proiektuaren helburua edo nahia euskararen erabilera kalean, herrian eta giro informaletan bultzatzea da. Euskalgintzak asko aurreratu du alderdi formaletan, baina jendeak modu informalean hitz egiten duenean, normalean erdarara jotzeko ohitura du"





**Axier Huegun**

tan ikasten ari dira. Horiek badute nolabaiteko gaitasuna, baina ohiturarik ez. Orduan, hori da aldatu behar dutena, eta ez batek bakarrik, denek baizik.

### **Zer adinetako gazteekin zabilzate?**

**Axier Huegun.**- 14 eta 20 urte bitarteko gazteekin gabiltza. Hasieran 17-20 urtekoekin hasi ginen eta bi urtetan aritu ginen beraiekin. Ondoren, 14-15 urtekoekin ere hasi ginen, hots, neraberazoaren atarian daudenekin. Adin horretako gazteek datozen urteetan Lasarte-Orian proiektu horrekin jarraitzeko moduan egongo den gazte tipologia osatzen dute. B eta D ereduko gazteak dira, euskaraz hitz egiteko gaitasun nahikoa dutenak, baina erabiltzen ez dutenak.

Gaztetxo horiekin lan egiteko modua desberdina zela segituan konturatu ginen. Oso adin ezberdinak dira eta lan egiteko modua ere bai. Ez dugu guztiakin modu berean lan egiten.

### **Zer desberdintasun dago?**

**Axier.**- 18-20 urtekoekin lan kontzientea egin dezakezu; balantzeak egin izan ditugu, hausnarketa serioak eta kontzienteak... Baina, 15 urtekoekin lan kontzientea egitea alferrikakoa zela konturatu ginen. Koadrilan euskaraz hitz egitea zer den esaten hasten bagara, beraientzat oso abstraktua da, mundu irreal da eta ez dute ulertzen.

14-15 urteko koadrilekin lan egiteko bi gako daude. Lehenengoa, funtsezkoa, ondo pasa behar dutela, eta bigarrena umorea.

**Diego.**- Gure alde daukaguna zera da: adin horretan hasten direla koadrilak kalera irteten, eta askorentzat hori oso garrantzitsua da. Horregatik, Kuadrillategik eskaintzen diena oso ongi datorkie; kalea den gune bat eskaintzen diegu, baina ez da taberna, zerbait dinamikoa eta interesgarria baizik. Hizkuntzaz gain, beste gauza pila batekin egiten dute topo.

### **Nola iritsizinetengazte horien gana? Nolatan hasi ziren Kuadrillategin?**

**Diego.**- Kuadrillategi bezalako proiektuak ezezagunak dira, arrotzak suertatzen dira. Horregatik, guretzat hasieran oso garrantzitsua izan zen ikastetxeekin izan genuen harremana. Koadrilengana iristeko biderik zuzenena eta samurrena behar bada hori da; ikastetxera joan eta aurkezpen bat egitea ikastorduetan. Beste bide bat kale hezitzaileak egiten duena da; kalera joan eta galdezka hastea. Baina hori bortitzagoa izan zitekeela konturatu ginen, oso proiektu berritzailea eta arrotza zelako. Beraz, lehenengo bidea hautatu genuen.

Gauzak horrela, garrantzitsua izan da Institutuak eta Landaberri ikastolak eskaini diguten arreta eta laguntza. Zubi lana egin dute. Gainera, proiektuaren berri eman die-

gu, jakinaren gainean jarri ditugu eta ezerezetik sortutako proiektua ez dela konturatu dira.

### **Nola egiten duzue lan koadrilekin?**

**Axier.**- Lan egiteko modua gure bilakaerarekin lotua egon da, eta momentu honetan hiru tresna nahiko sendo ditugu: ekintza programa, eskolak eta balantzea.

### **Zein da tresna bakoitzaren zeregina?**

**Axier.**- Ekintza programarekin euskarazko gune soziolinguistiko bat sortu nahi izan dugu, Lasarte-Orian ez baitago. Gune horretan gazteek proposatutako eta aukeraturako hainbat aktibitate egiten ditugu: argazki lehiaketa, graffitiak, pintxo lehiaketa, masaiak, irteerak...

### **Eskolak esaten duzuenean zertaz ari zarete?**

**Susana Martinez.**- Eskolak euskarazko klaseak dira, baina ez ohikoak. Hasieran euskaltegiak programa bat zeukan landuta, non koadrila osoak parte hartzen zuen gaitasun desberdinak zituzten kideen arteko hartu-emanak bideratuz. Baina ezin izan genuen programa garatu gazteen mugengatik: denbora falta, ordu-tegiak bateratzeko zailtasunak... Ondorioz, koadriletako kide erdaldunak euskaltegiko ohiko taldeetan aritu dira eskolak jasotzen.

Horrez gain, koadrila osoa gutako batekin biltzen da astean behin. Egun hori beraien hizkuntz ohituraren aldaketa prozesua eztabaidatzeko, bideratzeko, planifikatzeko, negoziatzeko... erabiltzen da.

### **Hirugarren tresna balantzea aipatu duzue. Zeri ematen diozue izen hori?**

**Diego.**- Balantzeak dira koadrila



bakoitzak egiten dituen bilerak bere prozesuaren jabe egiteko eta bere prozesuaren zailtasunak eta oztopoak non dauden antzemateko.

**Zein da dinamizatzaileraren egitekoa jardura horietan guztietan?**

**Axier.-** Dinamizatzailerak aipatu ditugun hiru tresna horietan parte hartzen du, hau da, dinamizatzailerak berak esku hartzen du ekintzetan, eskoletan eta balantzeetan. Horrenbestez, alde batetik aisialdiko ekintzen dinamizatzailerak da, bestetik irakaslea, eta azkenik psikologoa. Beraz, lan egiteko modu berri bat edo figura berri bat sortzen da; ez da ekintzak dinamizatzen dituen bakarrik, edo klaseak ematen dituenak, hori baino gehiago egiten du, talde barruko egitura ezagutzen du, zer arau dituzten ere bai... Eta horren inguruan hausnarketa egiten du, ikerlaria da. Azken batean lana egiteko beste modu bat sortzen da. Zeren orain arte euskalgintzan indibiduoarekin egiten baldin bagenuen lana, orain taldeekin egiten baitugu, eta horrek lana egiteko beste modu bat baitakar.

**Ekintzak, eskolak, balantzeak, dinamizatzailerak eta koadrilak ditugu. Nola koordinatzen edo antolatzen da hori guztia?**

**Diego.-** Hasieran lau lan talderen artean banatzen genuen eginbeharrak: didaktika lan taldeak didaktikarekin zerikusia zuen guztia lantzen zuen, ikerketa lan taldeak ikerketarekin lotutako gauzak, ekintza lan taldeak ekintzak prestatu eta antolatzen zituen, motibazio taldea herrian proiektuaren berri emateaz arduratzen zen, eta talde eragileak proiektu osoaren jarraipena egiten zuen.


Orain, ordea, hiru urteren ondorioz, gure praktikan oinarrituz eta

# GAIA Kuadrillategi Proiektua

hutsuneak non zeuden ikusiz, konTURATU gara banatutako antolaketa hori baino askoz ere egokiagoa dela pertsona bakar bat egotea koadrilarekin. Izan ere, lan talde bakoitza bere zereginaz arduratzen zen, eta sakabanaketaren ondorioz informazioa galdu egiten zela ohartu ginen. Egokiagoa iruditu zitzaigun pertsona bakar bat arduratzea prozesu osoaz.

Pertsona horrek gauza guztietan jantzia egon behar du, azken finean, bere eskuetatik pasatzen delako informazio guztia. Noski, informazio hori esanguratsua da bai ikerketarako, bai ekintzen lan talderako eta bai didaktikarako, baina ez da egokia batetik bestera pasaz ibiltzea. Askoz ere hobea da pertsona bakar batek zuzenean biltzea informazioa.

"Orain arte indibiduoarekin egiten baldin bagenuen lana, orain taldeekin egiten dugu, eta horrek lana egiteko beste modu bat dakar"



Pello Jauregi





Diego Egizabal

**Susana.-** Horrela, gaur egun ikerketa lan taldea da zeregin horretaz arduratzen dena. Gu laurok gaudela talde honetan, eta lehen kasik 20 ginen aipatu taldeetan banatuta genbiltzanak.

**Zuekin dabilzan koadrilak erdaldunak, mistoak eta euskaldunak dira. Zein da azken horien funtzioa, zer egiten dute eta zer eragin du egiten dutenak?**

**Diego.-** Laguntzaile funtzioa betetzen dute hizkuntz ohiturak aldatzeko asmotan dabilzan koadrilekiko. Lehen esan dugun bezala, murgiltze lanean komunikazio estrategiak landu behar dituzte, eta koadrila euskaldunen zeregina euskarazko komunikazioa bideratzea da. Erdaldunek beren burua arrotza sentitzen dute euskaraz mintzatzen direnean, gaitasun traketsa dutenez lotsa ematen die, eta beren burua mugatua ikusten dute. Kasu horietan zaila da beraiek euskaraz hitz egiten hastea, eta egokiagoa da gu eta koadrila euskaldunak hurbiltzea beraiegana. Euskaldunok, gaitasun handigoa dugun neurrian, laguntza

ematen diegu.

**Susana.-** Erdaldunekin lan egitean baztertuekin lan egitean gertatzen denaren antzeko fenomenoak sortzen da. Ijitoak integratzeko behin eta berriz egiten da lan beraiekin, baina gizartearekin ez da ezer egiten. Antzeko zerbait gertatzen da euskararen kasuan. Euskaldunberriekin edo erdaldunekin bakarrik lan egiteak muga asko ditu. Euskaldunen eta erdaldunen munduak integratu nahi baditugu, biekin egin behar da lan, eta ez erdaldunekin bakarrik. Biak prestatu behar dira elkarrekin harremanak izateko.

**Zenbat koadrila eta gazte dabilza zuekin?**

**Susana.-** Gazteen koadrilak zazpi dira, hau da, 50 gazte inguru. Eta nagusien kasuan, sei koadrila, 30 lagun. Guztira, beraz, 80 pertsona mugitzen dira.

**Hasierako koadrilak mantendu al dira? Jarraitzen al dute?**

**Pello.-** Hiru urte hauetan %80k jarraitu egiten du, %20k utzi egin du eta beste %20 berriak dira. Beraz, gehiengoak jarraitu egiten du. Dena dela, kontuan hartu behar da koadrilak berak ere ez direla bere horretan mantendu urte hauetan, aldatu egin direla, alegia.

**Axier.-** Otsailean motibazio kanpaina berri bat egin dugu gaztetxoekin eta 40 pertsona etorri dira. Orain arte 15 urteko koadrila bakarra genuen, eta motibazio kanpainarekin 40 bildu ditugu. Horrekin proiektuko bi adarrak (gaztetxoena eta gazteena) nahiko osatuta gelditzen dira.

**Orain arteko lanarekin zer neurtu duzue?**

**Pello.-** Euskalduntzen ari direnen kasuan haien hizkuntz gaitasuna etengabe neurtzen aritu gara ikas

prozesuan beren eboluzioa nolakoa izan den jakiteko. Halere, neurketa garrantzitsuenak harreman sareen bilakaerari begira egin dira, hau da; kideen arteko harremanak nolakoak eta zein diren, ea koadrilatik kanpo jende berria ezagutzen ari diren ala ez, koadrilatik kanpoko harreman sarea zabaltzen ari diren ala ez eta nola, harreman horretan zer hizkuntz erabilera egiten den...

Finean, neurketa dexente ditugu. Ondoren, datu horiek ez ditugu ikerketarako bakarrik erabiltzen, baita interbentziorako ere, hau da, beraiekin balantzeak egiten ditugunean ere erabiltzen ditugu. Guk gure diagnostikoa egiten dugu datu horietan oinarrituta, gero beraiei ezagutarazten diegu eta beraiek ere berea egiten dute.

**Zer emaitza atera dituzue orain arte?**

**Pello.-** Oraindik oso goiz da emaitzak aipatzeko, datuak biltzen eta behin-behinetako txostenak egiten gabiltza. Dena den, ateratako emaitzen txosten bat egingo dugu eta bi zati izango ditu; alde batetik esperientzia honek izan duen emaitza datuetan, eta bestetik aurrera begirako ongi zehaztutako proposamena beste herri batzuean horrelako bat abian jartzeko. Proposamen horrek lau atal izango ditu. Lehenengoa dinamizatzailearen edo koadrilekin lan egingo duen pertsonaren perfilak eta formazioak nolakoa izan behar duen. Bigarrena esplikazio teoriko bat izango da; hizkuntz ohi-turen aldaketa nola gertatzen den, zein faktorek eragiten duten eta nola elkarlotzen diren faktore horiek prozesu horretan. Hirugarrena lan metodologiari buruzkoa izango da; koadrilekin nola lan egin behar den, balantzeak nola egin behar diren, eskolak edo klaseak behar al diren

eta baiezkotan nolakoak... lan egiteko metodologia bat eskaini nahi dugu. Eta laugarren atala horrek guztiak eskatzen duen egituraketa eta antolaketaren ingurukoa izango da.

**Esperientzia pilotua da, baina hemendik aurrera zabaltzeko aukerarik ikusten al duzue?**

**Pello.**- Herri askotatik deitu digute han ere egiteko eskatuz, baina orain arte ezezkoa esan diegu. Nahiago izan dugu indarrak hemen jarri eta lasai aztertu eta esperimintatu. Poliki-poliki joan nahi izan dugu. Hemendik aurrera, gauza taxutzen denean ikusiko dugu zabaltzeko aukerarik dagoen ala ez.

**Horrelako esperientziarik egin al da Euskal Herrian eta Euskal Herritik kanpo?**

**Pello.**- Ez dugu ezagutzen. Nik tesia egin nuenean asko irakurri nuen eta ez nuen ezer aurkitu arrazoi sinple bategatik: dauden bibliografia gehienak hizkuntz normalizatuari buruzkoak direlako. Eta hizkuntza normalizatuen kasuan seguraski ez da beharrezkoa izango

# GAIA Kuadrillategi Proiektua

guk egiten duguna egitea. Kasu horietan hain da handia hiztun horien aldeko indar soziologikoa eta hain dago normalizatua, non norbakoak berehala aldatzen duen bere jokaera. Hizkuntza gutxiagotuen kasuan, ordea, norberaren ahalegina ez da nahikoa, ingurunearen laguntza behar da jokaera aldatzeko.

Bestalde, bibliografia espezializatuan talde dinamikari eta talde gatazkei buruzko bibliografia luzea dago. Baina horietan ez da ezer aztertzen hizkuntza bera gatazka gune bezala hartuta. Hizkuntza konstante dela suposatzen da eta hizkuntza horretatik aztertzen dira gainontzeko arazo guztiak: komunikaziozkoak, botere taldeen artekoak... Baina ez da aztertzen hizkuntza bera gatazka bihurtzen denean edo taldean bertan hizkuntza aldatzen denean gertatzen dena. Ondorioz, gure intuizioz, gure hausnarketaz eta gure praktikaz aritu

"Euskaldunberriekin edo erdaldunekin bakarrik lan egiteak muga asko ditu. Euskaldunen eta erdaldunen munduak integratu nahi baditugu, biekin egin behar da lan, eta ez erdaldunekin bakarrik. Biak prestatu behar dira elkarrekin harremanak izateko"



Susana Martinez

# **e**lkarriketa

ITZIAR ELORZA  
DIANA LINDSAY

*“European eredu bezala gauzkate 9 urteren ondoren gure proiektuak jarraipena duelako”*



Itziar Elorza eta Diana Lindsay, Ikastolen Elkarteko Eleanitz proiektuaren arduradunak.



**1** 991n jarri zen martxan Eleanitz proiektua Euskal Herriko hainbat ikastolatan. Gaur egun 56 ikastola dira 4 urteko haurrekin hasi eta 16 urtekoekin bukatzen den proiektu horretan sartuta daudenak. 9 urteko esperientziaren ondoren, badute zer esana eta zer irakatsia, eta horregatik jo dugu Itziar Elorza eta Diana Lindsayrengana. Beraien ardurapean daude, besteak beste, hizkuntzen arteko integrazioaren lotura egitea, ingeleseko curriculum osatzea, materialak sortzea eta irakasleak prestatzea.

**Orain dela 9 urte hasi zineten eleanitz proiektua 4 urteko haurrekin lantzen. Zer ulertzen duzue Eleanitz kontzeptuarekin?**

**Itziar.**- Guretzat kontzeptu hori garrantzitsua da, zeren normalean ingelesaren eta ingeles goiztiarraren inguruan hitz egiten baitugu, eta guk ez dugu hori nabarmendu nahi. Guk azpimarratzen duguna da garrantzitsuena ez dela ingelesa noiz sartu edo noiz ez sartu, baizik eta nola, alegia, eleaniztasunaren planteamendua nola egin. Inguruan ditugun hizkuntza guztiak hartu behar dira kontuan era integratu batean, eta horren arabera planteatu. Azken finean, ingelesaren sarrera goiztiarra ditugun hizkuntz helburuak bideratzeko estrategia bat da, metodo bat. Agian ez da bakarra, eta beste aukera batzuk ere egon litezke.

**Gaur egun nahiko onartua dago proiektu eleanitzak egokiak direlako ustea, baina badaude hori esaten ez duten zenbait teoria. Hizkuntza bat ondo menperatu gabe beste batekin hastea astakeria dela dio-te. Zer diozue?**

**Diana.**- Gaur egun hiru hizkuntzatan funtzionatzen duten hainbat eta hainbat esperientzia daude, eta baita eskola sistema osoak ere. Luxenburgan, adibidez,

betidanik funtzionatu dute horrela. Kontua ez da zenbat hizkuntza irakasten diren, baizik eta nola. Nik uste dut hori dela gakoa, eta gauzak ondo egin behar dira.

Egoera batzuetan ingelesa sartzeak kalteak sor ditzake, baina ez hiru hizkuntza direlako, hiru hizkuntza horiek gaizki planteatzen direlako baizik.

**Nola hasi zineten zuek Eleanitz proiektuarekin?**

**Itziar.**- 1991n hasi ginen 4 urteko haurrei ingelesa irakasten eta proiektua martxan jarri genuenean gure kezka bideak bilatzea zen. Horrela, hainbat ate joz eta kontaktuak bilatuz, Josep Maria Artigalekin jarri ginen harremanetan. Hizkuntz didaktikan aditua da eta bage-nekien esperientzia batzuk eginak zituela. 4-5 urteko etapara mugatzen da bera, eta horren inguruan dauka eginda plangintza osoa eta bere hausnarketa teoriko osoa. Beraz, Artigalekin hasi ginen Haur Hezkuntzako planteamendua egiten.

**Diana.**- Baina proiektu batekin hasten zarenean, jarraitu egin behar duzu. Bideak irekitzen hasi eta gero erantzun egin behar duzu. Artigalekin Haur Hezkuntza ziurtatua geneukan, baina Lehen Hezkuntzako planteamendurekin jarraitu beharra geneukan.

Horretan geundela, ia-ia kasualitatez, Europako proiektu bat eskaini ziguten. Traute Taeschner zen zuzendaria, Artigalekin lan egindakoa, eta beraz, planteamendu metodologiko aldetik antzeko ildoak jarraitzen zituena. Horrenbestez, ikastolak Euskal Herriko talde esperimental bezala sartu ginen proiektu europar hartan.

**Zer esan nahi izan zuen zuentzat proiektu europar batean parte hartzeak?**

**Diana.**- Europar proiektu horretan Holanda, Italia eta Ingalaterrako unibertsitateko talde batzuekin eta beste zenbait eskolarekin hasi ginen kolaboratzen. Bi edo hiru urtez aritu ginen elkarrekin prestatzen eta materiala osatzen, eta hainbat testuinguru eta eskolatan erabiltzen hasi ginen. Italian eta hemen, esate



baterako, ingelesa irakasteko erabiltzen zen, baina Holandan eta Ingalaterran kanpotarrei bertako hizkuntza irakasteko.

Esperimentatu eta gero ebaluatu egin genuen. Proiektu nahiko sendoa zen, eta horretan oinarrituta egin genuen Lehen Hezkuntzako lehen zikloko planteamendua.

**Itziar.**- Hortik aurrera jarraipena guk geronek eman diogu. Europar talde horrekin jarraitu dugu lanean, baina 8 urtetik aurrera geuk zuzendu dugu geure planteamendua. Geuk sortzen ditugu ikasmaterialak eta gero hainbat herrialde-tako hizkuntzetara itzultzen dira. Momentu honetan italierara, nederlanderara eta gaztelarara itzuliak daude.

**Zein metodologiatan oinarritzen da Eleanitz proiektu hau?**

**Itziar.**- Metodologia aldetik, ikuspuntu naturaletik egiten dugu planteamendua. Adin bakoitzean ikasteko era desberdina da, eta beraz, planteamendu metodologikoa ere bai.

**Haur Hezkuntzan, esaterako, nolakoa da planteamendua?**

**Itziar.**- Haurrak hizkuntzaz jabetzeko berez dituen estrategiak hartzen ditugu oinarritzat, bere ama hizkuntzan aplika-



ITZIAR ELORZA  
DIANA LINDSAY



**“Garrantzitsuena ez da ingelesa noiz sartu edo noiz ez sartu, baizik eta nola ”**

tzen dituen horiek. Eta atzerriko hizkuntzan aplikatzeko ahalik eta une gehien eskaintzen saiatzen gara. Eskolan hizkuntza horretan bizitzeko testuinguru txikitxo batzuk sortzen ditugu, eta eskola giroan naturalak izan daitezkeen erabilerak ingelesez egiten ditugu: ipuin dramatizatuak, kantak, jolasak...

Horretarako, egiten duguna da testuingurua ongi finkatu eta hasieratik ingelesez aritzeko aukera izango dutela ziurtatu. Egokia iruditzen zaigu ingelesko espazioa ahalik eta gehien bereiztea. Horrela, hizkuntza horretarako espazio berezia daukagu, eta haurrak badaki gela horretan sartzean han dagoen pertsonarekin ingelesez aritu behar duela. Hizkuntza eta pertsonen arteko lotura egiteari ere garrantzia ematen diogu; beraz, ingelesko irakasleak haurrekin duen harreman bakarrak ingelesez izan beharko du, eta pertsona hori ingelesarekin identifikatzen du haurrak.

**Hori Haur Hezkuntzan, eta hortik aurrera?**

**Diana.** - Adina igo ahala, poliki-poliki eskola gaien inguruko planteamendueta-  
ra goaz. Lehen Hezkuntzaren bukaeran proiektuak egiten ditugu; ingurunearekin edota zehar lerroren batekin lotura duen gaien inguruko lan proposamenak dira.

DBHko lehen zikloan hainbat arlotako gaiak hartu eta ingelesari begira garatzen ditugu. Adibidez, unibertsoren inguruko unitate didaktiko bat egiten ari gara orain. Eduki aldetik planetak eta gizarte arloan lantzen diren gauzak dira, baina gure zeregina da horri etekina ateratzea ingelesa lantzeko. Beraz, beste faktore bat sartzen da eta metodologia aldetik aldatu egiten da.

DBHn arlo bat hartu eta arlo horretako edukiak ingelesez lantzen dira. Azken helburua DBHko azken zikloan zuzenean arlo bat ingelesez egiteko gaitasuna edukitzea da.

Finean, eskolako testuinguru komunikatibo horretan naturalak diren erabilerak ingelesez eskaintzea da; ipuinetik eta jolasetik abiatu eta poliki-poliki eskola aprendizai bihurtzea.

**Nola planteatzen duzue hizkuntzen arteko oreka?**

**Itziar.** - Oso garbi dago eta legezkoa da euskara eta gaztelania maila berean eta oso maila onean jaso behar dutela Derri-  
gorrezko Hezkuntzan. Gure ustez, gaurko gizartean eta gauzak dauden bezala, horrek esan nahi du euskararen arloan izugarritzko indarra egin behar dela. Eskolak eman behar dio gizarteak ematen ez dion erantzuna, dagoen desberdintasuna orekatzeko. Eskolak bere egitekoa du desoreka hori apurtzeko.

**Diana.** - Horrelako planteamendu bat egiteko aurrealdintza garbia da D erdua edukitzea; euskararen lekua eskolan ondo ziurtatuta egotea, ondo definitua egotea eta ingelesa sartzeak hori arriskuan ez jartzea. Kontua ez da ingelesari garrantzia emateagatik euskarari kalte egitea.

**Euskara, gaztelania eta ingelesa aipatzen dituzue. Horiek al dira ikastola guztietako Eleanitz proiektuan dauden hizkuntzak?**

**Itziar.** - Proiektu honekin hasi ginenean frantsesaren eta ingelesaren eskaintza egin genuen atzerriko hizkuntza bezala, eta ikastola guztiek ingelesa hautatu zuten. Gaur egun, 9 urte pasa eta gero, ez dut uste inork planteatuko lukeenik beste hizkuntza bat hartzea. Ingelesa nazioarteko hizkuntza bihurtu da.

**Diana.** - Halere, gure planteamendua lau hizkuntzatakoa da, hots, DBHn 4. hizkuntza sartzen dugu ikasgai bezala. Normalean frantsesa edo alemaniera izaten dira.

**Iparraldeko ikastolen kasuan egoera ezberdina izango litzateke. Eleanitz proiektuan sartuta al daude?**

Iparraldean momentuz ez diote lehen-tasunik ematen gai honi, eta hango ikastolak ez daude proiektuan sartuta. Haien kasuan, noski, gaztelania eskainiko litzateke 4. hizkuntza bezala.

**Lortzen al da hizkuntza guztiak filosofia berarekin lantzea? Hots, ingelesko gelan eta euskarako**

## gelan metodologia eta planteamendu bera erabiltzea?

**Diana.** - Guretzat gero eta garrantzi gehiago du hizkuntzen planteamendu integratua egiteak, eta Ikastolen Elkarte-ko ikasmaterialgintzan filosofia komun baten barruan garatzen ditugu hizkuntza desberdinak. Ingeleseko sorkuntzan euskarari eta gaztelanian egindakoarekin lotura egiten saiatzen gara. Baina hori irakasleen prestakuntzarekin egiten dugu topo. Alde batetik, egiten den planteamendu komunikatiboa dago, denok onartzen duguna. Eta bestetik, norberaren gela barruko jardura, giroa, dinamika eta interakzioa. Gauza horiek guztiak aldatzea zaila da.

## Hori guztia aurrera ateratzeko irakasleen prestakuntzak berebiziko garrantzia du. Nola daukazue planteatuta irakasleen formakuntza?

**Diana.** - Askok zaintzen dugu irakasleen prestakuntza jarraia. Irakasle batzuk astean egun bat edo liberatuta daude, eta gurekin batera, beste irakasleen formakuntzaz arduratzen dira. Hiru pertsona daude Haur Hezkuntzarako eta Lehen Hezkuntzako lehenengo mailatarako, eta beste bi hurrengo mailatarako. Horiek eskualdekako bilerak egiten dituzte irakasleekin.

Ikasturte hasieran bi, hiru edo lau egunetan elkartzen gara urteko oinarri teoriakoak ezartzeko, eta hortik aurrera, ikasturtean zehar, praktikaren hausnarketa egiten dugu. Denok material komunak ditugu, lan erritmo berdintsua jarraitzen dugu eta egiten dugunaz hausnartzen dugu. Sortzen dugun materiala argitaratu ahala irakasleekin kontrastatzeko aukera ematen digute bilerak horiek. Horrela, materiala osatu, aldatu eta hobetzeko aukera dugu. Prozesu kreatiboa izaten da, jendea inplikatu sentitzen da eta jendearen arteko harremanak ere oso onak izaten dira. Lan talde oso sendoak sortzen dira.

**Itziar.** - Formakuntza hori ziurtatzea oso garrantzitsua da. Ikastolen Elkartearen zerbitzuak elkartean federatuta dauden ikastolara iristen dira, baina hortik kanpora ere formakuntza zabaltzea ezin



bestekoa iruditzen zaigu. Unibertsitatearekin behin eta berrero hitz egin izan dugu horretaz. Izan ere, HIZPEIrekin (Hizkuntz Pedagogia Institutua) batera egin dugu Lehen Hezkuntzako proiektu europarra, eta formakuntzaren orokortzeak bere ardura izan beharko luke. Eta horretan gaude, formakuntzarako diseinu bat bilatu nahirik.

## Ikasmaterialgintzari dagokionez, zenbait kritika entzuten dira, esanez materiala zuentzako bakarrik gordetzen duzuela, ez duzuela publiko egiten, nahiko pribatizatzailea dela...

**Itziar.** - Agian egia da, baina proiektu esperimental bat egiten ari gara eta Derrigorrezko Hezkuntzaren bukaerara arte ez diogu amaiera emango, eta ezta orokortzeko aukera ere. Hori da gure ikuspuntua: proiektu esperimentala jarraitzen duen bitartean gure ildoak eta baldintzak ondo kontrolatzen jarraitu nahi dugu. Derrigorrezko Hezkuntzaren bukaerara iristen garenean orokortu egingo dugu, eta beste edozein arlotan bezala ireki egingo dugu. Baina momentuz, iruditzen zaigu garrantzitsua dela gauzak zaintzea eta egiten dena ondo egiten dela ziurtatzea.

**Diana.** - Daukagun planteamendu metodologikoagatik iruditzen zaigu materialak ez direla ezer formakuntza sendorik ez badago. Eta momentu honetan guk geuk ez daukagu baldintzarik formakuntza hori eskaintzeko. Orduan, materialak saldu? Bada, merkatuan jar ditzakegu, baina badakigu material horrek ez lukeela funtzionatuko, bitzita

esparru oso motza izango lukeela. Hasieran denek gustura hartuko lukete, baina bi urteren buruan ez luke funtzionatuko, jendeak horri erantzuteko adina formakuntzarik ez daukalako.

## Proiektuaren ebaluaziorik egin al duzue? Nolakoak?

**Itziar.** - Ebaluazioa egiten dugu, eta alderdi batetik baino gehiagotik. Batetik, kanpoko ebaluazioa dago. Unibertsitateak (HIZPEI) egiten du berau, eta koordinazio taldeak frogan diseinuan parte hartzen du, frogak gelan egiten denaren inguruan egin behar direlako. Baina gero, ebaluazioa, horren kontrola eta emaitzen azterketa unibertsitateak egiten du. Bestetik, barruko ebaluazioa dago, irakasleen ebaluazioa. Froga batzuk proposatuta daude eta horren inguruan egiten da lan.

**Diana.** - Ingeleseko ebaluazioa urtero egiten da. Momentuz ezin ditugu emaitzak alderatu, baina haurren eboluzioa ikusten dugu eta pixkanaka-pixkanaka ingelesa jasotzen doaz.

Proiektu osoaren ebaluazioan, berriz, euskara, gaztelania eta gaitasun orokorren neurtzen dira, eta hori etapaka egiten da. Aurten Lehen Hezkuntzako azken etapako emaitzak aterako ditugu.

## Europako taldeak ebaluaziorik egin al dizue?

**Itziar.** - European eredu bezala gauzate 9 urteren ondoren gure proiektuak jarraitpena duelako. Normalean proiektuak 3 edo 4 urterako egiten dira eta gero hori uzten dira. Zaila da horrenbeste urtetako jarraitpena ematea, eta guk, egia esan, lor-

ITZIAR ELORZA  
DIANA LINDSAY



“*Ikastetxe  
osoaren  
inplikazioa  
garrantzitsua  
da; eskolako  
hezkuntza  
proiektuaren  
elementu  
garrantzitsua  
izatea  
eskatzen  
dugu*”

tu dugu. Noski, hasi ginenetik hona gauza asko aldatu dira etengabe ikertzen, esperimentatzen eta jendearekin harremanetan gaudelako.

**Sari europar bat ere jaso zenuten orain dela bi urte.**

**Diana.**- Bai, "Atzerriko hizkuntzen irakaskuntzan berrikuntza" saria eman ziguten ingeleseko ikasmateriarengatik. European garrantzi handia ematen diete hizkuntzei. Lingua programa dago eta materialen sorkuntza, formakuntza, elkartrukeak... bultzatzen ditu. Horrekin lotuta dago eman ziguten saria. Berez sari europarra da, baina herrialde bakoitzeko ministeritzak erabakitzen du nori eman. Horregatik, saria europarra izanagatik, Esperanza Agirrek eman zigun.

**Itziar.**- Gertatzen zaiguna da ingeleseko proiektua dela-eta, nahiko ezagunak egiten ari garela Espainian. Dei asko jasotzen ditugu eta formakuntza ematen ere ibili gara. Eta euskara eta gaztelania-ko materialak, berriz, nire ustez kalitate ona eta egokia dutenak, ez daukate oihartzunik.

**Bukatzeko, zer baldintza bete behar ditu ikastetxe batek zuen Eleanitz proiektuan sartzeko? Zer eskatzen zaio?**

**Itziar.**- Lehenengo, D ereduko ikaste-

txea izatea. Gero, jarraipena izatea, kontua ez baita 4 urterekin hasi eta gero uztea. 4 urterekin hasi eta 16rekin bukatzeko konpromisoa hartu behar da, eta ziurtatu ere bai. Horregatik, erabakia ikastetxe mailan hartzea eskatzen dugu. Ezin du izan ingeleseko irakaslearen edo momentuko zuzendariaren erabakia, baizik eta klaustroarena edota organo gorenarena, hots, ikastetxe mailakoa. Ikastetxe osoaren inplikazioa garrantzitsua da; eskolako hezkuntza proiektuaren elementu garrantzitsua izatea eskatzen dugu.

**Diana.**- Ordutegia ere oso inportantea da. Guk ezarritako gutxienekoak errespetatzea eta onartzea baldintza bezala jartzen dugu. Garbi dago denbora minimotan gabiltzala, 4 urterekin hasi arren oso ordu gutxi baitira.

Bestalde, pertsonalaren arazoak sortzen dira; pertsona berriak sartu behar direlako eta normalean ikastetxeek dauzkaten irakasleak aprobetxatu nahi izaten dituztelako. Hori dela eta, borrokan ibiltzen gara.

Halaber, irakasleen prestakuntza ere baldintza bezala jartzen dugu. Ikastolak argi eduki behar du ingeleseko irakasleak hilean behin elkartu beharko duela beste ikastetxeetako irakasleekin eta formakuntzarako denbora beharko duela.



# hik hasi

## Haur-jolasen abestien

euskal  
heziketarako  
aldizkaria

48

Haur-  
jolasen  
abestien  
partiturak

hik hasi

Xabier Zabala



# Haur-jolasen abestien partiturak

**H**ik Hasiren Haur-jolasen abestiak bildumako 45 abestiren partiturak aurkezten dizkizuegu jarraian. Abestiak entzun, kantatu eta jolastu ez ezik, edozein

instrumenturekin jotzeko posibilitatea izango duzue, horrenbestez. Aukera hori eskaintzea da gure asmoa, bederen. Hortik aurrera, on dagizuela!

## Haur-jolasen abestiak I

### 1.- Euskaraz jolasten (DOM)

Xabier Zabala

### 3.- Gure gelakoena (DOM)

Xabier Zabala

### 7.- Zapiarena (REM)

Martin Irizar - Xabier Zabala

### 8.- Sokaz beheraka (DOM)

Xabier Zabala

## 2.- Harriola-marriolaka (DOM)

Xabier Zabala

Musical score for Harriola-marriolaka (DOM) by Xabier Zabala. The score consists of three staves of music in a 2/4 time signature. The notes are: Staff 1: D4, E4, F4, G4, A4, B4, C5, B4, A4, G4, F4, E4, D4. Staff 2: D4, E4, F4, G4, A4, B4, C5, B4, A4, G4, F4, E4, D4. Staff 3: D4, E4, F4, G4, A4, B4, C5, B4, A4, G4, F4, E4, D4.

## 4.- Hamabostarena (DOM)

Xabier Zabala

Musical score for Hamabostarena (DOM) by Xabier Zabala. The score consists of six staves of music in a 2/4 time signature. The notes are: Staff 1: D4, E4, F4, G4, A4, B4, C5, B4, A4, G4, F4, E4, D4. Staff 2: D4, E4, F4, G4, A4, B4, C5, B4, A4, G4, F4, E4, D4. Staff 3: D4, E4, F4, G4, A4, B4, C5, B4, A4, G4, F4, E4, D4. Staff 4: D4, E4, F4, G4, A4, B4, C5, B4, A4, G4, F4, E4, D4. Staff 5: D4, E4, F4, G4, A4, B4, C5, B4, A4, G4, F4, E4, D4. Staff 6: D4, E4, F4, G4, A4, B4, C5, B4, A4, G4, F4, E4, D4.

## 5.- Orduena (DOM)

Martin Irizar - Xabier Zabala

Musical score for Orduena (DOM) by Martin Irizar and Xabier Zabala. The score consists of five staves of music in a 2/4 time signature. The notes are: Staff 1: D4, E4, F4, G4, A4, B4, C5, B4, A4, G4, F4, E4, D4. Staff 2: D4, E4, F4, G4, A4, B4, C5, B4, A4, G4, F4, E4, D4. Staff 3: D4, E4, F4, G4, A4, B4, C5, B4, A4, G4, F4, E4, D4. Staff 4: D4, E4, F4, G4, A4, B4, C5, B4, A4, G4, F4, E4, D4. Staff 5: D4, E4, F4, G4, A4, B4, C5, B4, A4, G4, F4, E4, D4.

## 6.- Krabelinarena (DOM)

Xabier Zabala

Musical score for Krabelinarena (DOM) by Xabier Zabala. The score consists of five staves of music in a 2/4 time signature. The notes are: Staff 1: D4, E4, F4, G4, A4, B4, C5, B4, A4, G4, F4, E4, D4. Staff 2: D4, E4, F4, G4, A4, B4, C5, B4, A4, G4, F4, E4, D4. Staff 3: D4, E4, F4, G4, A4, B4, C5, B4, A4, G4, F4, E4, D4. Staff 4: D4, E4, F4, G4, A4, B4, C5, B4, A4, G4, F4, E4, D4. Staff 5: D4, E4, F4, G4, A4, B4, C5, B4, A4, G4, F4, E4, D4.

## 9.- Arrautzaren behatzen jokoa (SIbM)

Xabier Zabala

Musical score for Arrautzaren behatzen jokoa (SIbM) by Xabier Zabala. The score consists of six staves of music in a 2/4 time signature. The notes are: Staff 1: D4, E4, F4, G4, A4, B4, C5, B4, A4, G4, F4, E4, D4. Staff 2: D4, E4, F4, G4, A4, B4, C5, B4, A4, G4, F4, E4, D4. Staff 3: D4, E4, F4, G4, A4, B4, C5, B4, A4, G4, F4, E4, D4. Staff 4: D4, E4, F4, G4, A4, B4, C5, B4, A4, G4, F4, E4, D4. Staff 5: D4, E4, F4, G4, A4, B4, C5, B4, A4, G4, F4, E4, D4. Staff 6: D4, E4, F4, G4, A4, B4, C5, B4, A4, G4, F4, E4, D4.

## 12.- Dilin-dilinka (DOM)

Xabier Zabala

Musical score for Dilin-dilinka (DOM) by Xabier Zabala. The score consists of six staves of music in a 2/4 time signature. The notes are: Staff 1: D4, E4, F4, G4, A4, B4, C5, B4, A4, G4, F4, E4, D4. Staff 2: D4, E4, F4, G4, A4, B4, C5, B4, A4, G4, F4, E4, D4. Staff 3: D4, E4, F4, G4, A4, B4, C5, B4, A4, G4, F4, E4, D4. Staff 4: D4, E4, F4, G4, A4, B4, C5, B4, A4, G4, F4, E4, D4. Staff 5: D4, E4, F4, G4, A4, B4, C5, B4, A4, G4, F4, E4, D4. Staff 6: D4, E4, F4, G4, A4, B4, C5, B4, A4, G4, F4, E4, D4.

### 10.- Asmazak/asmazan (rem)

Xabier Zabala

Musical score for 'Asmazak/asmazan (rem)' by Xabier Zabala. The score consists of three staves. The first staff has notes with lyrics 'amari' and 'volem' above it, and 'DOM' below. The second staff has notes with lyrics 'volem' and 'DOM' above it, and 'DOM' and 'SBM' below. The third staff has notes with the lyric 'TAM' above it.

### 11.- Lehenengotxo hori (REM)

Xabier Zabala

Musical score for 'Lehenengotxo hori (REM)' by Xabier Zabala. The score consists of two staves. The first staff has notes with lyrics 'REM' and 'volem' above it. The second staff has notes with lyrics 'SOLM', 'REM', 'TA7', and 'REM' above it.

### 13.- Zabuan (SBM)

Xabier Zabala

Musical score for 'Zabuan (SBM)' by Xabier Zabala. The score consists of five staves. The first staff has notes with lyrics 'SBM' and 'volem' above it, and 'SBM' below. The second staff has notes with lyrics 'TA7', 'SBM', and 'volem' above it, and 'SBM' below. The third staff has notes with lyrics 'TA7', 'volem', and 'volem' above it, and 'SBM' below. The fourth staff has notes with lyrics 'volem' and 'volem' above it, and 'TA7' below. The fifth staff has notes with the lyric 'SBM' above it.

### 14.- Zorion bero-beroa (DOM)

Xabier Zabala

Musical score for 'Zorion bero-beroa (DOM)' by Xabier Zabala. The score consists of eight staves. The first staff has notes with lyrics 'DOM', 'volem', 'volem', and 'DOM' above it. The second staff has notes with lyrics 'FAM', 'SOL7', 'DOM', 'volem', 'volem', 'volem', and 'DOM' above it. The third staff has notes with lyrics 'DOM', 'volem', 'volem', and 'SBM' above it. The fourth staff has notes with lyrics 'DOM', 'SOL7', 'DOM', 'volem', 'volem', 'SOL7', and 'DOM' above it. The fifth staff has notes with lyrics 'volem', 'volem', 'SOL7', and 'DOM' above it. The sixth staff has notes with lyrics 'volem', 'volem', 'SOL7', and 'DOM' above it. The seventh staff has notes with lyrics 'volem', 'volem', 'SOL7', and 'DOM' above it. The eighth staff has notes with lyrics 'volem', 'volem', 'SOL7', and 'DOM' above it.

### 15.- Zinuka (DOM-FAM)

Martin Irizar - Xabier Zabala

Musical score for 'Zinuka (DOM-FAM)' by Martin Irizar - Xabier Zabala. The score consists of four staves. The first staff has notes with lyrics 'DOM', 'volem', 'SOLM', and 'DOM' above it. The second staff has notes with lyrics 'volem', 'SOLM', and 'DOM' above it. The third staff has notes with lyrics 'DOM', 'volem', and 'DOM' above it. The fourth staff has notes with lyrics 'DOM', 'volem', 'DOM', and 'DOM' above it.

### 16.- Aulkiena (DOM)

Martin Irizar - Xabier Zabala

Musical score for 'Aulkiena (DOM)' by Martin Irizar - Xabier Zabala. The score consists of four staves. The first staff has notes with lyrics 'DOM', 'volem', 'volem', and 'volem' above it. The second staff has notes with lyrics 'volem', 'SOLM', 'DOM', 'volem', 'volem', 'SOLM', and 'DOM' above it. The third staff has notes with lyrics 'DOM', 'volem', 'SOLM', and 'DOM' above it. The fourth staff has notes with lyrics 'volem', 'volem', 'SOLM', and 'DOM' above it.





# Haur-jolasen abestiak II

## 1.- Trena (DOM)

Xabier Zabala

## 2.- Zubiri-zubiri (DOM)

Herrikoia

## 3.- Txakolinke (REM-SOLM-DOM)

Xabier Zabala

## 4.- Mandoka (FAM)

Xabier Zabala

## 11.- Txibiriku (LAM)

Xabier Zabala

## 5.- Harri koskor batekin (LAM)

Herrikoia

Musical score for 'Harri koskor batekin' (LAM) by Herrikoia. The score is written in treble clef with a key signature of one sharp (F#) and a 3/4 time signature. It consists of four staves of music. Chord symbols are placed above the notes: LAM, LA7, KKM, dofm, MEM, LAM, dofm, dia, MEM, LAM, LA7, KKM, dofm, MEM, LAM, dofm, dia, MEM, LAM.

## 6.- Sardina bat (FAM)

Herrikoia

Musical score for 'Sardina bat' (FAM) by Herrikoia. The score is written in treble clef with a key signature of one sharp (F#) and a 3/4 time signature. It consists of eight staves of music. The chord symbol FAM is written at the beginning of the first staff.

## 7.- Gure herriko alkatea (LAM)

Xabier Zabala

Musical score for 'Gure herriko alkatea' (LAM) by Xabier Zabala. The score is written in treble clef with a key signature of one sharp (F#) and a 3/4 time signature. It consists of four staves of music. Chord symbols are placed above the notes: LAM, TIM, MEM, MEM, LAM, KKM, MEM, dofm, SEM, MEM, TIM.

## 12.- Dantzari txikitxo (REM)

Herrikoia

Musical score for 'Dantzari txikitxo' (REM) by Herrikoia. The score is written in treble clef with a key signature of one sharp (F#) and a 3/4 time signature. It consists of six staves of music. Chord symbols are placed above the notes: KKM, LAM, KKM, LAM, KKM, MEM, KKM, LAM, KKM, TIM, LAM, REM, LAM, KKM, LAM, REM, LAM, REM, SOLM, REM, LAM, KKM, TIM.

## 8.- Do-Re-Mi (SOLM)

Xabier Zabala

Musical score for 'Do-Re-Mi' (SOLM) by Xabier Zabala. The score is written in treble clef with a key signature of one sharp (F#) and a 3/4 time signature. It consists of five staves of music. Chord symbols are placed above the notes: SOLM, KKM, SOLM, DOM, KKM, SEM, SEM, MEM, LAM, LA7, KKM, LAM, LA7, KKM.

## 9.- Txaloa jotzen duena (MIM)

Xabier Zabala

Musical score for 'Txaloa jotzen duena (MIM)' by Xabier Zabala. The score is written in treble clef with a key signature of one sharp (F#) and a 3/4 time signature. It consists of 10 staves of music. The lyrics are: MIM SIM daktu daktu; LAM SIM SOLIM; daktu daktu SIM; MIM MIM daktu; LAM SIM MIM daktu; SIM MIM; MIM SIM; daktu daktu LAM SIM; SOLIM daktu; daktu SIM MIM; MIM daktu LAM SIM; MIM daktu SIM MIM.

## 10.- Ni Jaio nintzen (LAM)

Xabier Zabala

Musical score for 'Ni Jaio nintzen (LAM)' by Xabier Zabala. The score is written in treble clef with a key signature of one sharp (F#) and a 3/4 time signature. It consists of 8 staves of music. The lyrics are: LAM SIM MIM daktu; daktu SIM MIM LAM; LAM daktu SIM MIM; daktu daktu SIM MIM; LAM SIM MIM daktu; daktu SIM MIM LAM; daktu SIM MIM LAM; daktu SIM MIM LAM.

## 19.- Xanti eta Maribi (DOM)

Xabier Zabala

Musical score for 'Xanti eta Maribi (DOM)' by Xabier Zabala. The score is written in treble clef with a key signature of one sharp (F#) and a 3/4 time signature. It consists of 6 staves of music. The lyrics are: DOM TAM SOLIM; DOM TAM SOLIM; SIM SIM SIM; SIM SIM SIM; SIM SIM SIM; SIM SIM SIM.

## 15.- Guztira 24 (LAM)

Xabier Zabala

Musical score for 'Guztira 24 (LAM)' by Xabier Zabala. The score is written in treble clef with a key signature of one sharp (F#) and a 3/4 time signature. It consists of 3 staves of music. The lyrics are: LAM SIM MIT LAM; SIM MIT LAM; SIM MIT LAM.

## 16.- Patxiku (REM)

Xabier Zabala

Musical score for 'Patxiku (REM)' by Xabier Zabala. The score is written in treble clef with a key signature of one sharp (F#) and a 3/4 time signature. It consists of 3 staves of music. The lyrics are: REM SIM SIM; LAM SIM SIM LAM; REM.

### 13.- Bihar igandea (DOM)

Herrikoia

Musical score for 'Bihar igandea (DOM)' in 3/4 time. The score consists of seven staves of music with lyrics written above the notes. The lyrics include: BIHAR, BIHAR, DOM, SUNDIA, DOM, SUNDIA, SUNDIA, SUNDIA, SUNDIA, SUNDIA, SUNDIA, DOM.

### 14.- Ilaran goaz (MIM)

Xabier Zabala

Musical score for 'Ilaran goaz (MIM)' in 3/4 time. The score consists of seven staves of music with lyrics written above the notes. The lyrics include: MIM, MIM, MIM, LAM, MIM, LAM, MIM, LAM, MIM, LAM, MIM, LAM, MIM.

### 17.- Martin-tin (SIM)

Xabier Zabala

Musical score for 'Martin-tin (SIM)' in 3/4 time. The score consists of five staves of music with lyrics written above the notes. The lyrics include: SIM, SIM, SIM, SIM, SIM, SIM, SIM, SIM, SIM, SIM, SIM, SIM, SIM, SIM, SIM, SIM, SIM, SIM, SIM, SIM.

### 20.- Martin konkortsua (DOM)

Herrikoia

Musical score for 'Martin konkortsua (DOM)' in 3/4 time. The score consists of seven staves of music with lyrics written above the notes. The lyrics include: DOM, DOM, DOM, DOM, DOM, DOM, DOM, DOM, DOM, DOM, DOM, DOM, DOM, DOM, DOM, DOM, DOM, DOM, DOM, DOM.

### 18.- Serafin mokofin (LAM)

Xabier Zabala

Musical score for 'Serafin mokofin (LAM)' in 3/4 time. The score consists of three staves of music with lyrics written above the notes. The lyrics include: LAM, LAM, LAM, LAM, LAM, LAM, LAM, LAM, LAM, LAM, LAM, LAM, LAM, LAM, LAM, LAM, LAM, LAM, LAM, LAM.



## 23.- Banpiroa (fam)

Herrikoia

Musical score for 'Banpiroa (fam)' in 3/4 time, featuring six staves of music with lyrics: GUR, MERM, BERM, DOT, LER, MERM, KERM, TROT, FER, MERM, BERM, VOT, FER, MERM, BERM, LUT, FER, MERM, BERM, LUT, GUR, MERM, BERM, DOT.

## 21.- Bat eta bi (DOM)

Xabier Zabala

Musical score for 'Bat eta bi (DOM)' in 3/4 time, featuring three staves of music with lyrics: IKEM, IEM, TAM, SEM, DOM, IEM, FAM, SEM, FAM, DOM, SEM, IKEM.

## 22.- Magila (LAM)

Herrikoia

Musical score for 'Magila (LAM)' in 3/4 time, featuring three staves of music with lyrics: LAM, MAM, LAM.



# Esperientziak

## 0 - 3 urte bitarteko haurraren garapen psikologikoa

**Z**uen seme-alaba Haur Hezkuntzako 1. zikloan sartuko da berehalaxe. Etapa hau oso garrantzitsua da, eta neurri batean honek bere garapena baldintzatuko du. Gizakume den neurrian, gizartearen balio, arau eta jarrerak bereganatu behar ditu. Dakizuenez, LOGSE delako Legeak etapa hau arautzen du Haur Hezkuntzako 1. ziklo gisa onartzen duelako. Ez da derrigorrezko etapa, baina gizartean sortzen ari diren aldaketak direla-eta, hezkuntza etapa horri behar bezalako erantzuna eman behar zaio. Hezkuntza etapa honetan zuen seme-alabek aldaketa eta aurrerapauso nabariak nozituko dituzte garapen arlo ezberdinetan: motore, adimen, afektibosozial eta hizkuntza arloetan.

Gida honek bi helburu ditu: alde batetik, zuen seme-alabaren garapena modu argi eta eskematiko batez azal-

tzea; eta beste aldetik, zuen seme-alabaren garapen orokorrean parte hartu ahal izatea.

Norberak bere garapen eta hezitze erritmoa dauka, eta gida honetan agertzen diren uneek gehiengoari erantzuten diotela azpimarratu nahi dugu. Familia eta hezkuntza giroaren garrantziaz ohartu behar dugu, haurraren garapena baldintzatzen baitute.

Lerro hauetan pertsona baten lehenengo urteetako garapena kontatu nahi dizuegu. Horretarako, lagun batzuk ditugu eta beraiek kontatuko dizute euren arlo guztien (psikomotritzitatea, adimena, hizkuntza, alde afektiboa eta soziala) garapena nolakoa izan zen.



1. irudia: Kaixo, Eneko naiz eta 3 urte ditut. Kontatu behar dizuet zein izan den nire garapena jaiointzenetik.



Kamino ETXAGUE, Doneztebeko BHIko eskola orientatzailea, Ana MAZKIARAN, Altsasuko Zelandi Institutu Publikoko eskola orientatzailea eta Iñaki MARTINEZ, Etxarri-Aranazko San Donato Institutu Publikoko eskola orientatzailea.

## Garapen psikomotorea

### 0-1 urte bitarteko haurraren garapena

Jaio nintzenez oso txikia nintzen, 50 cm-ko luzera nuen eta hiru kilo pisatzen nituen. Baina jaio nintzenetik erregularra eta jarraikorra den garapen prozesua segitu nuenez, orain mutiko koxkorra naiz. Aipatutako prozesu horri nire pediatrik garapen-kurba deitzen zion, eta aldiro, berarengana joaten nintzenez, nire garapenaren aurrepausoak nire osasun liburuxkan apuntatzen zituen.

Nire garapenak honako bi lege hauei jarraitzen zien:

1) Zefalo-kaudal legea. Honen arabera, buruaren ondoan dauden gorputz atalak lehenago kontrolatzen dira, kontrola gero eta beherago dauden gorputz ataletara hedatzen delarik. Horrela bada, lehenengo goiko gorputzadarrak eta geroxeago beheko gorputzadarrak kontrolatu nituen.

2) Hurbil-urruneko legea. Lege honen arabera, lehenengo gorputz ardatzetik hurbilago dauden gorputz atalak kontrolatzen dira, geroxeago gorputz ardatzetik aldentzen direnak kontrolatzen direlarik. Hau dela eta, lehenengo besaburuak, gero besoak, gero eskumuturrak eta gero eskuak kontrolatu nituen.

Lege hauek ezagututa, mugimendu eta ezarrerazko kontrola nola garatzen nuen kontatuko dizuet.

- Hiru hilabete inguru nituenean buruari eusten nion.

- Lau hilabete nitularik begi-esku koordinazioa mantentzen nuen, eta aurrean ikusten nuen objektu bat hartzeko gauza nintzen. Dagoeneko ez nituen besoak astintzen, ezta eskudarik ematen ere.

- Sei-zazpi hilabete ingururekin eserita egoten nintzen laguntzarik gabe.

- Geroxeago, zortzi hilabeterekin, arrastaka hasi nintzen. Arrastaka eta katamarka mugitzen nintzen etxetik.

- Hamar hilabete inguru nituela gurasoen eskutik helduta ibiltzea gusatzen zitzaidan.

- Urtebete nuelarik ia-ia bakarrik

ibiltzeko gai nintzen, baina esku batek helduta ziurrago sentitzen nintzen.

### 1-2 urte bitarteko haurraren garapena

- Hamalau hilabeterekin laguntzarik gabe ibiltzen hasi nintzen. Batzuetan erori egiten nintzen, baina gero eta ziurrago sentitzen nintzen.

- Ibiltzen banekienez, eskailerak aurkitu nituen. Asko gustatzen zitzaidan eskailerak igo eta jaitea, hasieran laguntzarekin eta geroxeago nik bakarrik.

- Nire lehenengo urtebetetzean oparitu zidaten "correpasillos" delakoa gustukoa nuen.

- Ama edota aitarekin jolasten nuenean, batzuetan pilota elkarri botatzen aritzen ginen, nik beste puntara botatzen banuen ere.

- Beste batzuetan marrazten aritzen nintzen, eta zirrimarrak egitea asko gustatzen zitzaidan.

- Ah! kolore eta tamaina ezberdineko piezekin jolastea ere gustatzen zitzaidan. Kubo batzuk beste batzuen barruan sartzen, piezak pilatzen eta abar denbora dexente pasatzen nuen.

- Ikusten duzue, nire adinari egokitutako objektu guztiekin jolastea eta esperimintatzea oso gustukoa nuen.

- Jateko garaian, eskua nahiko ongi kontrolatzen banekienez, bakarrik jan nahi izaten nuen zerbait lurrera erori arren.

### 2-3 urte bitarteko haurraren garapena

- Bi urte bete nituenean, triziklo bat oparitu zidaten. Hasieran kostata, baina oinpekoie eragiten ikasi nuen. Nolako paseoak egiten nituen!

- Eskailerak oinak aldizkatuz igotzen ikasi nuen, eta geroxeago jaisten ere bai.

- Arropa erantzten ongi pasatzen nuen, janzen ere bai, baina botoirik eta kremaierarik gabeko arropak izan behar zuten.

- Jatorduak oso gustukoak nituen, ia ezer erori gabe ni bakarrik jateko gai nintzelako.

- Marraztea, hori bai gustatzen zitzaidala! Gainera, gero eta trebeagoa nintzen. Hiru urte betetzear nengoela, zirrimarrak eta biribilak ere egiten nituen. A ze marrazki politak!

- Garai horretan pixa eta kaka kontrolatzen ikasi nuen. Horregatik, egunez troxa kendu zidaten.



2. irudia: Ikusten duzue, sardexka erabiltzen ikasi dut. Zikindu egin naiz, baina ez du inporta!

## Adimenaren garapena

### 0-1 urte bitarteko haurraren garapena

Jaiotakoan sortzetiko erreflexu batzuk banituen (hartzeko, zurgatzeko) eta horietaz baliaturik hasi nintzen ikasten.

Hasieran, ezertaz ez nintzela ohar-tzen ematen bazuen ere, nire lehentasunak banituen. Adibidez, objektu distiratsuak, kontrasteak, mugimenduak, koloreak eta soinuak gustatzen zitzaidan, sortzetiko lehentasunak baitira. Handitzen ari nintzelarik, erakartzen ninduten estimuluak gero eta konplexuagoak ziren.

Gehienetan estimulu horiek ama-rengandik edota zaintzen ninduen pertsonarengandik jasotzen nituenez,

denbora aunitz pasatzen nuen beraiei begira: begien distira, aurpegiaren itxura, ilearekiko kontrastea, buruaren, begien eta ahoaren mugimendua... Maite ninduten pertsonetikiko kontaktua eta beraien usaina ere gusatzten zitzaizkidan.

Modu horretan, nire inguruko estimuluen bidez, ikasi egiten nuen eta nire adimena garatu. Munduarekiko erlazioa nire zentzumenen eta mugimenduaren bidez mantentzen nuen. Nire ekintzen ondorioez ohartzen nintzen, nahiak garatzen nituen eta nire buru eskemak koordinatzen nituen.

Orain azalduko dizuet nire adimenaren garapenaren prozesua nola izan zen (esan didate J. Piaget izeneko gizon batek horrela izendatu zituela):

- Lehenengo garapen etapa (0-1 hilabete: sortzetiko erreflexuen ariketa). Adin honetan, bai sortzetiko erreflexuei esker, baita kanpoko estimulaziorari esker ere, nire testuinguruan egokitzen nintzen eta nire lehenengo buru eskemak eraikitzen hasi nintzen. Titia, biberioia... zurruputzen nituen eta eskuetan zerbait jarritz gero, gogor estutzen nuen.

- Bigarren garapen etapa (1-4 hilabete: lortutako lehenengo moldaketa eta erreakzio zirkular primarioa). Nire zentzumenei esker, nire inguruko gauzez ohartzen nintzen eta egoerak neureganatzeaz gain, nire buru eskemetan egokiarazten hasi nintzen. Momentuz, nik burutzen eta errepikatzen nituen ekintzak neure gorputzarekin erlazionatuta zeuden.

- Hirugarren garapen etapa (4-8 hilabete: bigarren mailako erreakzio zirkularra). Dagoeneko, hurbileko objektuekin eta pertsonekin elkarrekintzan nengoen. Amak esaten dit norbaitek hitz egiten zidanean oso kontent jartzen nintzela eta besoak eta zangoak astintzen nituela. Gauza bera egiten nuen nire aurrean zerbait mugitzen bazen. Noski! Gustatutako estimulua (kasu honetan pertsona eta bere ahotsa edota objektu baten mugimendua) berriz jasotzearen egiten nuen hori, hots, kasualitatez gertatutako efektu bat berriz jasotzeko asmotan.

Ez nuen nahita egiten, ez nuen intenzionalitaterik adierazten. Hori aurrerago ikasi nuen.

- Laugarren garapen etapa (8-12 hilabete: bitarteko helburuen arteko erlazioetan aplikatutako bigarren mailako buru eskemen koordinaketa). Mutiko koxkorra nintzelarik hiru lorpen adierazgarri izan nituen: nire inguruan gertatzen zenari jarritako arreta indartu nuen, intenzionalitatea azaldu nuen eta instrumentalezko buru eskemen koordinaketak garatu nituen, zeinak bitarteko helburuen arteko erlazioetan aplikatuta zeuden. Horrela bada, zoluan ikusitako panpin bat hartu nahi nuenean eta bide erdian oztopo bat topatzen nuenean, oztopoa baztertzeko eta panpina hartzeko gai nintzen.

Keinu eta soinu berriak imitatzen ere asko aurreratu nuen.

### 1-2 urte bitarteko haurren garapena

- Bosgarren garapen etapa (12-18 hilabete: hirugarren mailako erreakzio zirkularrak). Egoera berriei lotutako esperimendu prozesu baten ondorioz, nire buru eskemetan erlazio instrumental berriak aurkitu nituen. Dagoeneko nire ekintzak nahita burutzen nituen, eta egoera ezberdinez nahiko ongi ohartzen nintzen.

Nire buru eskemen mugikortasuna zela-eta, zerbait lortzen ez nuenean berriz saiatzten nintzen. Oroitzen naiz, behin, eskuare batez jolasten ari nintzela, ondoan nituen jostailu batzuk niregana hurbiltzea lortu nuela, hura aurkikuntza! Gero, jostailu horiek aldentzen nituen. A ze jolas entretenigarria! Lehendabizi eskuareaz jostailuak hurbildu, eta geroxeago eskuareaz jostailuak aldendu.

- Seigarren garapen etapa (18-24 hilabete: buru eskemen irudikapena dela-eta, buru eskemen konbinazio berrien asmaketa). Objektu eta gertakizunen irudikapenari esker, ingurunean esperimendatzeko aukera zabalduta zitzaidan. Adimen sentsomotoretik adimen sinbolikora iragatea izan zen. Ikusten ez nituen objektuetan eta pertsonengan pentsatzen nuen, eta modu berean, ikusten ez nituen ereduak imitatzeke gauza nintzen. Badakizue, joko sinbolikoan hasi nintzen!. Aitak esaten dit oso ongi oroitzen dela askotan kaxa bat hartu eta autoa baililtzan jolasten nuela.

### 2-3 urte bitarteko haurren garapena

Orain, bi urte bete eta gero, objektuak, pertsonak eta egoerak ezagutzen eta irudikatzen ditudanez, aita, ama, medikua... naizela jolastea asko gustatzen zait. Horrela nire pentsamendua eta adimena garatzen ditut, eta nire sentimenduak eta emozioak adierazten ditut.



### 3. irudia: 2 urteko haur baten marrazkia.

### Mintzamenaren garapena 0-1 urte bitarteko haurren garapena

Jaio nintzenean ez nuen ezer esaten, baina pixkanaka-pixkanaka hizketan hasi nintzen. Kontatuko dizuet nola izan zen.

- Ia-ia jaio nintzenetik zerbait ahos-





katzen nuen. Lehenengo hilabeteetan zizakatu egiten nuen.

- Seigarren hilabetetik aurrera, inguruan entzuten nituen soinuak adi-adi entzuten nituen eta imitatzea gustatzen zitzaidan.

- Amak esaten dit /a/ eta /e/ fonemak bederatzi hilabete nituelarik esaten nituela, eta urtebetean lehenengo hitzak esaten hasi nintzela. Nire lehenengo hitzak /p/, /t/ eta /m/ kontsonantez eta bokalez osaturiko hitzak izan ziren; adibidez "pata", "ama", "tata", "pete"...

Pixkanaka-pixkanaka hizkuntza garatuz joan nintzen. Horretarako, nire hurbileko pertsonetik harremanak behar-beharrezkoak izan nituen.

### 1-2 urte bitarteko haurraren garapena

- Nire bizitzaren bigarren urtean hitzak esaten hasi nintzen. Hasieran, 12. hilabetearen inguruan, hitz batez esaldi oso bat adierazi nahi nuen. Adibidez, batzuetan "ura" esaten nuenean "aita, ura nahi dut" esan nahi nuen.

- 18 hilabeterekin bi hitz esaten nituen esaldi oso bat adierazteko asmoz. Nire aitari entzun diot horren txikia nintzela "aita zapata" esaten niola, bai berak zapata jartzen zidanean, baita bere zapata ikusten nuenean ere. Hala ere, gure arteko harremana zela-eta, nire gurasoek nahiko ongi ulertzen zidaten egoera bakoitzean zer esan nahi nuen.

- Nire bigarren urtearen bukaeran asko hitz egiten nuen, nire erara, noski. Mordoilo adierazkorra zen, non adierazpenak, intonazioa, pausaldiak eta errit-

moa adierazten bainituen.

- Bi urte inguru nituenean, bokal guztiak, kontsonante asko eta diptongo batzuk ere ongi ahoskatzen nituen.

- Amari edota aitari entzundako adierazpen batzuk errepikatzen nituen, hasieran beraiek erabiltzen zituzten tes-tuinguru berean, eta geroago beste tes-tuingurutan ere bai. Adibidez, bazkaria bukatu ondoren "bapo" esaten ikasi nuen beraiei entzunda. Bi hilabete pasa ondoren, jostailu batekin jolasteaz aspertuta nengoenean hitz bera erabiltzen nuen. Hau da, zenbait hitz orokortu egiten nituen. Era berean, kalean ikusten nituen emakume guztiei "ama" esaten nien.

### 2-3 urte bitarteko haurraren garapena

Beno, bada, poliki-poliki gero eta gehiago eta hobeto hitz egiten nuen.

- Nire hirugarren urtearen hasieran, erabiltzen nuen hitz kopurua bikoiztu egin zen.

- Dagoeneko, hitzen plurala, generoa, artikulua, izenordeak, aditzen lehenaldia eta infinitiboa... erabiltzen nituen.

- Bi urte eta erdirekin esaldi osoak esaten nituen. Ia edonork oso ongi ulertzen zuen nik esaten nuena; beraz, ez nintzen haserretzen.

- Hitz egitea asko gustatzen zitzaidan, ni neu nahi nuena esateko gauza nintzela konturatzen nintzen-eta. Gurasoekin, lagunekin, irakasleekin, senideekin eta jostailuekin ere hitz egiten nuen. (Piaget horrek jostailuekin jolastu eta hitz egiteari "joko sinboli-

koa" deitzen omen zion).

- Hiru urterekin ederki asko hitz egiten nuen. Beno, zenbait hizki eta fonema oraindik ez nituen oso ongi ahoskatzen, baina bost urte bete arte normala omen da, eta lasai nago.

## Garapen afektibo-soziala

### 0-1 urte bitarteko haurraren garapena

Nire garapena orokorra bazen ere, arlo hau oso garrantzitsua dela esan daiteke. Nire afektibitatea nire sozializazio prozesuaren garapenaren funtsa zen. Gaur egun ere bada, baina lehenengo bi urteak oso-oso garrantzitsuak izan ziren.

- Jaio nintzenetik, pertsonak ezagutzen ez banituen ere, estimulu sozialak bilatzen nituen, eta gustukoak nituen (aurpegiaren itxurak, ahotsak...).

- Oso goiz adierazi nituen interesa, nahia eta nahigabea.

- Lehenengo hilabeteetan amarekiko atxikimendua garatu nuen, berak elikadura, maitasuna, arreta eta segurtasuna eskaintzen baitzizkidan.

- Bigarren eta hirugarren hilabeteen, nire aurrean zegoena mugitu egiten bazen eta zerbait esaten bazidan, irribarre egiten nuen, bere aurpegian begiak eta ahoa bereizten nituen-eta.

- Laugarren hilabeteen tristura eta haserrea adierazteko gai nintzen, eta pertsonen adierazpen emozionalak ere nahiko ongi bereizten nituen.

- Seigarren hilabetetik aurrera pertsonak ezagutzen hasi nintzen. Horregatik, batzuetan, ezagutzen ez nuen pertsona batekin gelditzen nintzenean negar egiteari ekiten nion, larritasuna adieraziz.

- Urtea bete nuenean, beste pertsonen adierazpen emozionalen arabera, nire portaera erregulatzekeko kapaz nintzen.

- Garai beretsuan lotsa eta herabea adierazten hasi nintzen.

Horrela, nire lehenbiziko urtean, gizarteko gizakume bezala, sozializazioaren prozesuaren barrenean adimenezko, jarrerazko eta afektuzko prozesuak garatzen hasia nintzen.

## 1-2 urte bitarteko haurren garapena

Niretzat emozioak oso garrantzitsuak ziren eta dira. Emozioen eta sentimenduen adierazpenak neure familian bertan ezagutzen hasi nintzen. Nire bizitzaren bigarren urtean, askoz errazago bereizten nituen egoera ezberdinak.

- Adimenaren sozializazio prozesuari dagokionez, pertsonak ezagutzen nituen eta neuk neure burua ezagutzen nuen.

- Jarrerazko sozializazio prozesuaren kasuan, arauak, ohiturak eta balioak ere ezagutzen eta barneratzen hasi nintzen. Modu horretan, neure portaera gero eta gehiago erregulatzen nuen.

- Prozesu afektiboari dagokionez, amarekiko atxikimendua indartu nuen. Nik gure erlazioan kantitatea, kalitatea, helkortasuna, gertutasuna, esklusibotasuna, baldintza gabetasuna eta iraunkortasuna baloratzen nituen. Gaur egun ere harremana horrelakoa izatea baloratzen dut.

- Garai horretan, adimen eta hizkuntza gaitasunari esker, gurasoekiko interakzioa esanahi sozialaz beterikoa zen.

## 2-3 urte bitarteko haurren garapena

- Ordurako nire familia giroaz oharitzen nintzen: gurasoen arteko erlazioaz, nirekiko eta besteekiko erlazioaz...

- Nire identitatea eta nire rola gero eta hobeto ezagutzen nituen.

- Modu berean, balioak, arauak, ohiturak, jarrera egokiak eta desagokiak, eta giza trebetasunak gero eta hobeto ezagutzen nituen, eta horren arabera, neure portaera zuzentzen saiatzen nintzen. Hala ere, batzuetan, gizarteak eskatzen edota espero zuena (ama, aita edota beste pertsona baten bitartez adierazita) eta nire nahia bat etortzen ez zirenean, izugarrizko amorrua sentitzen nuen. Hori gero eta gutxiagotan gertatzen zait. Egia esan, zenbaitetan ez ditut helduak ulertzen.

Gizarte bateko partaide naizen neurrian, gizarteko arauak eta balioak, seguraski, garatuko ditut. Horretarako nire familia eta nire talde sozialak oso garrantzitsuak dira eta izango dira, aipatutako arauak eta balioak haien bitartez jasoko ditudalako.



## Orientabideak

- Egokitzapen prozesua progresiboki programatu.

- Haur Eskola batean matrikulatzeko erabakia, haurrak jaso behar duen tratatzean, han pasa behar duen denboran, haurren adinean eta atxikimenduzko pertsonetikiko harremanetan datza.

- Eskola, azpiegiturak eta hurrekin aritzen direnak ezagutu behar dira.

- Behar den adinako lekua, aireztapen egokia, kanpoko jolastokia, sukaldea... behar dira.

- Garai honetan haurrak gizartearen bizitzan, erlazionatzen eta bere familiarik kanpoko pertsonekin bizitza konpartitzen ikasten du.

- Jokoaren bidez mugimenduak koordinatzen, hizkuntza hobetzen, bere irudimena garatzen eta beste hurrekin erlazionatzen ikasten du.

- Etapa honetako defentsen heldugabetasunak zoldurak errazten ditu. Horregatik, gaitz kutsakor batek jota dagoen edozein hurrek pediatrik esandakoa bete beharko du; esate baterako, etxean gelditu.

- Gurasoek seme-alaben eskaerez oharitu behar dute, ulertuz eta erantzun egokia bilatuz. Haserrealdiak edota bestelako arreta dei desagokiak ez dituzte onartu behar.

- Gurasoek eta irakasleek ukimenezko, begizko eta entzumenezko estimulu ugari eman behar dute. Helkorak izan behar dute eta prest egon.

- Lehendabiziko hilabeteetan helduaren agerraldiak jarraia eta hurbila izan behar du. Gerorako, bereizketak luzatzen ahal dira.

- Haurrak eskusiboki edota anai-arrebekin konpartitutako atxikimenduzko pertsonak izan behar ditu, pertsona horien arteko lehenetsunak ezarriz zeloz bideratzen ikasteko eta estimulazio ezberdina jasotzeko.

- Bere izaera eta jarreraz aparte, bere burua onartua sentitu behar du.

- Guraso edota irakasleen arteko hezkuntza pautek koherenteak izan behar dute, atxikimenduzko pertsonen arteko akordioak, elkarren arteko onespenez eta harreman afektibo aberatsek haurren ziurtasuna eta ongizatea errazten baitute.

- Diziplina arauak (gutxi eta argiak) ezinbestekoak dira.

## BIBLIOGRAFIA

- MARCHESI, A., COLL, C. eta PALACIOS, J.: *Desarrollo psicológico y educación I*. Alianza Psicología. Madrid. 1992.

- URIZ, N., ARMENTIA, M., BELARRA, R., CARRASCOSA, E., FRAILE, A., OLANGUA, P., eta PALACIO, A.: *El desarrollo psicológico del niño de 3 a 6 años*. Gobierno de Navarra. Departamento de Educación. Unidad Técnica de Orientación Escolar y Educación Especial. Pamplona 1991.

- VIÑAS, A.: *El primer año de vida en el niño semana a semana*. Planeta. Barcelona. 1992.

- PIAGET, J.: *La formación del símbolo en el niño*. Fondo de cultura económica. México. 1961.

- CORRAL, A., GUTIERREZ, F., eta HERRANZ, P.: *Psicología Evolutiva. Tomo I*. UNED. Madrid, 1997

- SCHWABENTHAN, S., eta WEIGERT, V.: *Madre e hijo*. Everest S. A. León. 1995.

## Jaialdiak eta festak

Udaberriko giroaren babesean eta ikasturteko azken txanpan, euskal irakas-kuntzaren aldeko hainbat jaialdi eta festarako gonbitea iritsi zaigu, eta zuei ere gonbidapena luzatu nahi dizuegu.

**Maiatzaren 14an**  
**HERRI URRATS** Senperen



**Maiatzaren 28an**  
**IBIALDIA** Balmasedan



**Ekainaren 11an**  
**EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN JAI**  
Donostian



**Ekainaren 11an**  
**ESKOLA TXIKIEN FESTA**  
Albizturren



**Ekainaren 13an**  
**ARABA EUSKARAZ**  
Laudion



## Gutunak

### Sanzen bihotzerrea

SANZen esanak Juan Goytisolo idazlearen aipu bat dakarkit gogora, Marchena Abadearen ahotan jarrita: "Espainolek, europarrak baino, kafre izatea zuten aspaldi hautatu, eta kafre izaten jarraituko dute, nahiz berriz modernoetan blaitu." Patetismotik haratago, Sanzen hitzak urduritasun, garraztasun eta ezjakinduriaren adierazle ditugu, eta horren adibide, Koldo Mitxelena zenaren aipuaren erabilpen zikina.

Seguraski, aurtengo aurrematrikulazio datuak irensgaitzak suertatu zitzaizkion Sanzi, eta artean bihotzerrez zegoelarik gure hizkuntzaren kontra oldartu zen. "SANZtiago eta gora Espainia!" oiukatzea baino ez zitzaion falta, Guerrero del Antifaz zaharraren antzera. Vasuencerren Legea edo Sanz bezalakorik, bi mila-

garren urtean.. halakorik! Patetikoagorik ezin! Bien bitartean, hainbat eta hainbat lekutan murgiltze ereduak aurrera darraite... hiru hizkuntzatan!

Izan ere, Europan eta mundu osoan, hezkuntza eredu elebakarrak bereak egin du; gaur egun, Europan, arraroa da pertsona elebakarrik aurkitzea. XXI. mendearen atarian gauden honetan, etorkizuneko belaunaldiak elebidun izan daitezen, gero eta guraso gehiagok hautatu du euskarazko D eredu, hemengo bi hizkuntzak era orekatu eta natural batez ikas ditzaten, D ereduaren lortzen baitira haur elebidunak. Eta esperientziak erakutsi digu elebidunek beste hizkuntza bat ikasteko erraztasunak dituztela.

Gure seme-alabak eleanitzak izatea nahi dugu, eta ingeles irakaslea naizen aldetik, argi daukat zeinen beharrezkoa den inge-

lesa egungo gizartean eta zeinen beharrezkoa den bere irakaspen goiztiarra eskolan. Hizkuntzak ikastea? Nola ez! Lehenik eta behin, geureak, eta gero, besteak. Horregatik, gure semea D eredu dago, Miguel Sanzek esanak esan, pedagogiaren aldetik eta zientziaren aldetik Sanzek esandakoak ez duelako ez buru ez hankarik, eta elebitasunaren aurkako eraso politikoa baizik ez delako.

Sanz jauna, ez erabili euskara zure interes politikoetarako. Vasuencerren Legea aldatu behar da nafatar guztiok geure bi hizkuntzak ikasi ahal ditzagun, eta ez alderantziz.

**Josu Jimenez Maia**  
**Ingeles irakaslea eta**  
**SORTZEN-IKASBATUAZeko kidea**



# Erantzuna, ezin hobea

**A**ntolatzaileen aldetik helburua gutxienez 300 matrikula izanik, gure nahia 500 matrikuletara heltzea zen. Hala ere, Udako Topaketa Pedagogikoek aurreikuspen guztiak gainditu dituzte. Izen emate epearen amaierarako 653 lagun genituen jada zerrendan izena emanda.

Erantzun jendetsu hau guztiz pozgarria da. Aurreikuspen guztiak gainditze honek antolakuntza lanak zailduko dizkigu. Ondorioz berregokipen batzuk egin beharrean izango gara. Ziur egon guztien berri garaz adieraziko dizuegula.

Ikastaro batzuetan guk ezarritako kopuru mugatua gainditu bada ere, epe barruan izena eman duten 653 horiei era egokian erantzuteko konpromezua hartzen dugu: azpitaldeak egin, irakasleak gehitu, areto handiagoak lortu eta behar diren neurriak hartuz.

Zenbaitzuk, **epez kanpo** ematen ari dira izena. Hauek, **plazak geratzen den ikastaroetan soilik** parte hartu ahal izango dute:

- **Kopuru mugatua ez duten ikastaroetan:**

1.- Vigotski.

8.- Bigarren Hezkuntza euskara-

ren erabilera nola sustatu.

11.- Atxikimenduaren inguruan: eskolaratze egoki baten bila.

- **Kopuru mugatua izan arren lekua geratzen den ikastaroetan**

4.- Afektibitatea eta Sexu Hezkuntzako C tailerrean (5 plaza).

5.- Plastikako A taldean (6 plaza) eta B taldean (3 plaza).

9.- Ingelesa Haur Hezkuntza (7 plaza).

## Ikastaro ezberdinetan aritzeko aukera

Hainbatek galdetzen du ea egun ezberdinetan posible den ikastaro batean baino gehiagotan parte hartzea.

Lehen aipatu bezala, kopuru mugatua duten ikastaroetan oso zaila ikusten dugu, ia plaza guztiak beteta daudelako, jada.

Kopuru mugatua ez duten ikastaroetan, berriz, gure aldetik ez da trabarik egongo, bakoitzak berarentzat egokiena dena aukera dezan.

## “Lanbide Heziketa euskalduntzeko saiakerak” ikastaroa bertan behera

Urtero bezala, EHUK Udako Ikastaroak antolatu ditu: 58 ikastaro, 3 biltzar, 3 eskola eta 4 tailer. Guztira 67 jardunaldi izango dira.

58 ikastaro horietatik 2 euskaraz izango dira. Eta bi horietako bat hezkuntzaz jardungo da: “Profesionalen euskalduntze-alfabetatzea” izenburupean.

Aipatu ikastaroa aztertzerakoan,

**hik hasi**  
udako  
topaketak

Uztailaren 4, 5 eta 6an Donostian



guk antolatu dugunaren antzekoa dela ohartu gara. Hizlari batzuk bi ikastaroetan errepikatzen dira eta antzekotasuna muturrera eramanez, HIK HASIk antolatu duenaren egun beretsuetan izango da. Hau da, uztailaren 6, 7 eta 8an.

Hau guztia kontuan izanik, eta HIK HASIren egitekoa Euskal Hezkuntza dauden hutsuneak betetzen ahalegintzea denez, EHUK antolatzen duen ikastaroak guk ikusitako hutsunea ongi asko bete dezakeela uste dugu. Zertarako, bada, bi ikastaro ezberdin egin eta entzuleak banatu?

Hori izan da HIK HASIren Udako Topaketetatik 10. ikastaroa bertan behera geratu izanaren arrazoia.



# Vigotskiren ekarpena hezkuntzaren mundura

Vigotski izan da, agian, gizakiaren garapen psikologikorako hezkuntza ezinbesteko baldintza moduan ulertu duen lehen ikerlaria psikologiaren eremuan. Hezkuntza, jakina, bere zentzurik zabalenean ulertu behar da hemen: gizakiak, bere ahalmen psikologikoak garatuko baditu, beste kideekiko harremanetan bakarrik eta horiei esker garatuko ditu. Izan ere, gizakiaren garapen psikologikoa ez dago genetikoki aurre-diseinaturik bakoitzak dakarren kode genetikoa. Kulturazko harremanen ondorio moduan ulertu behar da, hortakoz, giza garapen psikologikoa: gizakien artean burutzen diren elkarrekiko harremanen modura.

muturrean lokarri bat lotzea, adibidez. Zein izan daiteke horrelatsuko jokabide baten zentzua? Une eta toki bateko eskakizunek aldi berean bi motatako izaera duen erantzun bat gauzatzera daramate gizakia: bata izaera materiala (mukizapian korapilo bat, eskumuturrean lokarri bat), eta bestea izaera psikologikoa (oroitzea ziurtatzea). Era horretan, korapiloak edo lokarriak, berez une batean oso egokiak izan daitezkeen erantzunek, estimulu-izaera hartuko dute oso bestelakoa den beste une batean. Gizakiak, horrela, bere jokabidea baldintzatuko duten estimulu propioak sortuko ditu, une eta toki konkretuko estimuluen eragina gaindituz. (Kontuan izan behar da baldintzapen klasikoaren eta baldintzapen instrumentalaren irakaspideen arabera, gizakia, beste abere guztiak bezalaxe, uneko eta tokiko estimuluen eraginpe zuzenean legokeela).

Gizakiak sortu dituen bere estimulu propio horien bitartez;

\* une eta toki konkretuek ezartzen dizkioten baldintzak gaindituz, mugarik izanen ez duten estimulu eta erantzun itzulkorretarako aukerak zabaltzen zaizkio,

\* kanpoaldeko bitartekarien erabilera ahalbidetzen diote, eta berak sorturiko zeinu materialek baliabide psikologikotarako funtzioa hartzen dute horrela,

\* ingurunea bera aldatu beharrean (mailuak edo aizkorak eginen luketena), norberaren izaera, adimena eta moldaera aldarazten dute norberak sorturiko bitartekari psikologiko horiek.

Horren guztiaren ondorioz;

1) Gizakiak izaki bezala zekartzan prozesu naturalak berregituratu egiten dira berak sorturiko estimulu eta erantzun psikologiko horien agerpenarekin batera, eta azken horien menpera jartzen dira haiek. Bitartekarien bidez gauzatu-

Ikuspegi horretatik begiratuta, gizarteak hezkuntzarako moldatu duen erakundeetako bat bezala ulertu behar da eskola. Eskolaz kanpo hor daude familia, lagunartea, kultur eta kirol elkarteak eta antzeko beste hainbat: guztietan bere ahalmenak eta gaitasunak gara ditzake gizakiak. Izan ere, horixe dute guztiak helburu, bai argi eta garbi adierazia bai inplizitoki onartua. Elkarrekin harremanek, horrela, berebiziko garrantzia hartzen dute Vigotskiren ustetan giza garapen psikologikorako. Lehena izan zen garrantzi horretaz jabetzen eta hori azpimarratzen.



**Lontxo OIHARTZABAL**  
EHUko Pedagogia irakaslea

Baldintzapen horietatik abiatuz, goi mailako funtzio psikikoak bilakaera kulturalaren ondorio eta emaitza zirela onartzera eraman zuten Vigotski bere ikerketa psikologiko eta antropologikoen. Bere azterketetan aurkitu zituen aztarna-jokabideak bultzatu zuten horretara: espeziearen hastapenetako ezaugarri bezala ikus daitezkeen jokabide arkaikoak, egunotako gure kulturazko jokabideetan ere oraindik indarrean dirautenak. Eginkizun edo enkarguren bat ez ahazteko xedez lokarri bat hartu eta korapilo bat egitea bertan edo esku-

## Giza gaitasunen ezaugarriak

Giza jokabide guztiak estimulu-erantzun kate soilez argitu behar liratekeela zioten pentsamendu- eta ikerketa-ikuspegiak agintzen zuten mundu eta ingurunean burutu behar izan zuen bere lana eta ekarpena Vigotskik: komunistek ezarritako ikuspegi eta filosofia materialistak errespetatu eta psikologiaren esparruan konduktistek (behavioristek) ezarritako paradigmei jarraituz.

tako aditasun psikologiko kontzientea eta errepresentazioetan oinarrituz diharduen adimena moldatzen dira horrela (erantzuna emango diedan nire estimulu propioak sortzen ditut).

2) Zeinu betekizuna -eginkizun psikologikoa, beraz- hartzen duten estimulu/erantzun propio horien sorrera gizakien arteko elkarlanean eta elkarrekiko harremanetan ikusten du Vigotskik; goi mailako funtzio psikologikoen sorrera, beraz, gizakien arteko elkarlanari zor zaio.

3) Era horretan sortutako goi mailako funtzio psikologiko horien belaunaldien arteko transmisioa eta hedapena, pertsona helduagoek gazteagoekin izaten dituzten harreman eta elkar jardueren bitartez gauzatzen dira.

4) Harremanen eta elkar jardueren bitartez helduagoetatik gazteagoetara gertatzen den goi mailako funtzio psikologikoen transmisio horri hezkuntza izena eman dakiok, Vigotskiren ustez.

### Baliabidezko bitartekaritza

Sortu dituen bitartekari horien (zeinuak, sinboloak) bitartekotasunez, gizakiak bere adimena nola aldarazten duen eta aldakuntza horien izaera zein eratakoa den aztertzea izan zen Vigotskiren kezkarik nagusia. Hori argitu ahal izateko, ordea, zera aztertu beharrean aurkitzen da ikerlaria: une eta toki batean gertatzen diren estimuluak beste une eta toki batzuetan gizaki berorrek nola errepresentatzen dituen, eta kanpoaldeko zein laguntza eta oinarri dituen beharrezko. "Informazioa antolatzeko eta kanpoaldean bertokiratzeko baliogari zaizkigun objektu guztiak baliabide psikologikoak dira Vigotskirentzat", gogoratzen digute Amelia Alvarez eta Pablo del Ríok (1990), tresna horiei esker egin ahal baitiogu ihes unekotasunaren ezarpen-indarrari, eta behin eta birritan, nahi adinatan, berri eta oraingotu baititzakegu estimulu konkretuak errepresentazioaren bitartekaritza. Ez dugu errealtateak berriro noiz aurkeztuko dizkigun zain egon beharrik. Zentzu horretan, bitartekari dira errealtate errepresentatzeko baliagarri zaizkigun eta horretarako sortu ditugun erregela, zirkuluerdi graduatuak, ordu-

lariak, egutegiak... eta horien guztien gainetik era bateko edo besteko zeinu-sistemak: musika noten sistema... Baina guztietan nagusia hizkuntza da.

Orain artekoan adierazitakoaren arabera, geure kanpoaldeko inguruneaz nagusitzea eta jabetzea litzateke zeinuen eta zeinu-sistemen sorkuntzaren xede nagusia. Vigotskik, oso bestela, beste hau ere azpimarratzen du behin eta birritan, gizakiok geure buruaz jabetu gaitezen ere sortu ditugula baliabide psikologiko horiek: "Gizakiak ez zituen lan tresnak bakarrik sortu, zeintzuen bidez naturaren indarrak menpekotu zituen, baizik eta aldi berean, norberaren jokabideak aktibatzen eta erregulatzen zituzten estimuluak ere asmatu zituen, zeintzuen bitartekaritza norberaren indarrak ere bere mende hartu ahal izango zituen" (Vigotski, 1984). Gertakari horretaz jabetzeko nahikoa da norberak hizkuntza barneratuz edo hizkuntza isilaz -isil-hizketaz- egiten duen erabileraren inguruan gogoetatxo edo azterketatxo bat egitea. Hasiera batean zeinuak, sinboloak eta bereziki sistema batean antolatutako zeinu eta sinboloak (hizkuntza, musika sistema eta abar) zerbaitetaz oroitzeko sortuak izan baziren ere, giza gogoetarako oinarritzeko eta ezinbesteko baliabide eta tresneria bilakatu ziren.

Aurrera jarraitu aurretik, hona hemen ohar bat: gogoetarako eta elkarrekiko harremanetarako (komunikaziorako) bitartekaritza-baliabide izatea da hizkuntzaren betekizun psikologiko nagusia eta garrantzitsuena. Ondorioz, eskolatzearen eginkizunik nagusia hizkuntza komunikazio eta gogoetarako baliabide eraginkor bilakaraztea litzateke lehenik. Eta gero, askozaz geroago, aztergai bezala lantzea. Alderantziz ulertu izan ohi da hori eskolan eta eskolaratze lanetan. Gure ingurune kulturalera bilduz, adibidez, jabetu ote gara bertsolariek lortzen duten arrakasta komunikatiboaz? Eta galdetu ote diogu geure buruari zergatik lortzen duten jendartean arrakasta hori? Bertsolarietako askok eta askok hizkuntzaz ezagutza mugatua du oraindik, eta hala eta guztiz ere, entzulearengan barregura, tristura, poza eta antzeko sentipenak sorra-

razteko gauza da. Hizkuntzaz baliatzen da bertsolaria horretarako, hizkuntzaz esplizitoki askorik jakin gabe ere.

Zeinuen eta horiek biltzen dituen sistema ezberdinen sorrera eta bilakaera aztertuz gero, ohartuko gara kanpoaldetik erregulatzen zutela lehenik giza jokabidea: eskumuturrean bildutako lokarriak, adibidez, argi eta garbi erakusten du bitartekaritzaren ezaugarri hori. Beste kontu bat da barneratutako hitz baten edo esaldi baten bitartekaritzaren izaera. Kanpoaldetik zeinuetatik zeinu barneratuetara eginiko bidea eta bilakaera aztertzeke daude oraindik; psikologiaren eginkizun, alegia.

### Bitartekaritza soziala

Zeinuen munduko baliabideak giza harremanen giroan sortu ditu gizakiak. Eta zeinu horien beharra dute gizakiek elkarlana burutuko badute. Nola adierazi, bestela, urkoari non jaso behar duen lan edo eginkizun bat burutzeko beharrezko duen baliabide bat, tresna hori beste nonbait utzia badut nik lehenago? Zeinu eta sinboloen bitartekaritza bakarrik gauza daiteke hori. Elkarrekiko harreman honetan ikusten du Vigotskik goi mailako funtzio psikologikoen jatorria. Giza adimenak bideratzen dituen eragiketak gizakiaren kanpoaldean gauzatzen ditu lehenik besteekiko harremanen bidez. Izaera horretako eragiketak burutzeko gaitasuna garatzen doan neurrian, pertsona hori antzeko eragiketak barrualdean bakarrik burutzeko gai izanen da, hau da, zeinuen erabilera barneratu duenean. Horregatik dio bi aldi ezberdinetan agertzen direla funtzio guztiak haurren garapen kulturalen: pertsonen arteko harremanetan lehenik --psikearteko funtzioak-, eta geroago haurren barnealdean -psikebarneko funtzio moduan- (Vigotski, 1978). Goi mailako funtzio psikologiko guztiak, beraz, giza harremanetan dute jatorria.

Esanguratsua da Vigotski berak erabiltzen duen adibidea, gero bere ekarria aztertu duten autore gehienek aipatzen dutena: objektu bat eskuratu nahian dabil haurra, baina nahiz eta bere besoa erabat luzatu, ezin du eskuratu urrutiegi geratzen zaiolako. Haurra ahalegin

horretan ikusten du amak, eta inguratu eta objektua eskura jartzen dio. Gertakari hori behin eta birritan gertatu ondoren, besoa luzatuz objektua seinalatzen dio haurrak amari bestelako inolako ahaleginik egin gabe. Hasierako besoa luzatzea, objektua lortzeko benetakoa ahalegina zen. Amarekiko harremanen bidez objektua seinalatzeko (eta aldi berean laguntza eskatzeko) zeinu bilakatzen da geroago besoa luzatzea. Hortik aurrera haurrak nahikoa du besoa luzatuz objektua seinalatzea inguruko edozeinek objektua eskuratzen lagun diezaion.

Besoa luzatzea ez da eskaera-zeinu haurrak berez horrela asmatu duelako. Haurren kanpoaldean dauden helduagoek objektua lortzeko haurren ahalegina ikusi dute ttikia besoa luzatzen ikusi dutenean. Kanpoaldetik interpretatu da haurren ahalegina, eta helduak laguntzera inguratu zaizkio. Inguruko helduen jokabideak egin du besoa luzatzea eskaera-zeinu bezala ulertu dezala haurrak. Helduen jokabide hori gabe ez luke haurrak besoa luzatzea helduekiko harremanetan eskaera-zeinu bezala erabiltzeko aukerarik izango.

Era berean, ondoeza, gosea eta beste-

lako egoerak eragiten dioten garraxia ere, inguruko pertsona helduen jokabidearen arabera, egoera horretatik atera dezaten eskaera-zeinu bilakatuko du. Eta ikastearen poderioz, beste egoera batzuetan ere berak lortu nahi duen hura eskuratzeko eskaera-zeinu bezala erabiliko du geroago.

Zeinuen sorrera eta jatorria soziala dela frogaturik, lehen erabilera ere soziala dute: ingurunekeo besteen jokabidea kontrolatzeko erabiliko ditugu. Erabilera hori gaindituz gero, geure gogoetarako baliabide edo tresna bilakarazten ditugu. Giza harremanetan eta harreman horien bidez moldatutako zeinua barneratzen ditugunean soilik izanen zaizkigu tresna erabilgarri norbanakoon gogoetak moldatzeko eta egituratzeko.

### Giza harremanak ezinbesteko baldintza dira garapen psikologikorako

Beste ondorio bat ere ateratzen du gertakari horretatik Vigotskik: bestee-kiko harremanak dira haurren gaitasun psikologikoaren garapena eragiteko ezinbesteko motore. Harreman horiek zeinuen bidez gauzatzen dira gizartekideen artean. Hizkuntza dugu, zentzu horretan, gizakion arteko harremanak bideratzeko sortu eta moldatu dugun zeinu sistemarik emankorrena. Baina hizkuntzaz at ere, beste zeinu mota ugari erabili ohi ditugu elkarren arteko komunikazioa baldintzatzeko eta harremanetan eragina izateko: gorputzaren jarrera, adierazpen mimikoak eta antze-koak, adibidez.

Haurren garapen psikologikoa eragitea da gizakiok berarekin ditugun harremanen xede nagusia, nahiz eta horren kontzientzia beti ez izan esplizittoa inguruko pertsona helduetan (edo helduagoetan). Hezkuntzaz ari gara, beraz, gertakariak horrela interpretatuz; hezkuntza, jakina, bere zentzurik jatorrizko eta zabalenean ulerturik: hezkuntza formala bezalaxe ulertzen dugu ez formala ere. Ez dute harreman guztiek nolabaiteko aurrerapenik eragiten, ordea, haurren garapen psikologikoan.

Giza harremanen bidez helduagoak haurren garapen psikologikoan eragin

baikorrik izango badugu, haurren Berehalako Garapen Esparruan (BGE) behar dugu eragin. Zer da, ordea, BGE delako hori? Bi garapen maila ezberdin du zituen Vigotskik pertsonok egiten dugun garapen bidean:

a) Jada lortutako garapena edo garapen erreala; hau da, norberak berez eta inoren laguntzarik gabe burutzen dituen era guztietako eragiketek adierazten dutena.

b) Norbera baino helduago diren beste pertsona batzuen laguntza egokiaren bitartez burutzen dituen eragiketek adierazten dutena.

Bigarren garapen maila horri deritzo Berehalako Garapen Esparrua Vigotskik. Hezkuntza ahaleginetik inolako aurrerapen emaitzik izango badute haurren garapen psikologikoan, horren Berehalako Garapen Esparru horretan eragin behar dute. Bestela, haurrak berez bakarrik egin dezakeena irakatsi eta erakutsi nahian genbiltzake, eta horrek ez luke aurrerapenik eragingo; edota haurrak besteren laguntzaz ere burutu ezin ditzakeen eragiketak irakatsi nahian ibiliko ginatke, eta ahalegin horrek ere ez luke aurrerapausorik bideratuko haurren garapen psikologikoaren norabidean.

Hezitzaileen eragina ikaslearen BGE-an gerta dadin hainbat puntu kontuan hartzekoak dira. Horiek aipatuko ditugu ondorengo pasarteetan zehar.

**Elkarrekintza egoera definitu beharra.** Hezkuntza egoerei dagokienean bi ideia azpimarratu beharko lirateke hemen: elkarrekintza eta asimetria. Elkarrekintzak -hitzak berak dioskunez- elkarrekin jardutea eskatzen du: urkoak dituen asmoak, nahiak, itxaropenak, beldurrak, kezak, ahaleginak, ezagutzak, trebetasunak, gaitasunak, erraztasunak eta ezinak kontuan izanez elkarrekin jardutea, alegia. Asimetriak, berriz, hezkuntza egoeretan batek besteak baino gehiago dakiela esan nahi du, gaitasun landuagoak dituela eta egin nahi edo egin behar duena egiteko prestaturik eta trebatutako dagoela, eta beste, alderantziz, ikaste bidean aurkitzen dela, gehiago dakienaren irizpideei jarraituz ikasi beharrean, alegia.

Hezkuntza eremuko elkarrekintza emankorra izan dadin garrantzi handia du haurrak burutu beharko lituzkeen jarduerak nola ulertzen dituen eta haurrari nola proposatuko dizkiogun aurrez zehazki aztertutik eta definitutik izateak, eta ondorioz, irakaste/ikaste inguru-nea argi eta garbi definitutik edukitzeak. Gonzalez eta Palacios (1990) dakarten adibidea egokia izan daiteke adierazitakoa argitzea. Tamaina, neurri eta margo ezberdineko piezak aurkeztuz, hainbat gurasori haurrekin piramide bat eraiki dezatela eskatzen badiegu, era ezberdinetan planteatzea ezakete egin beharrekoa: guraso batzuentzat piramidearen eraikuntza amaitzea izan daiteke garrantzizkoa, norik zer egiten duen kontuan hartzeke; beste guraso batzuentzat, aldiz, haurrak jada garaturik dituen gaitasunak begi bistan izanik, ahalik eta gaitasun berri gehien garatzea izan daiteke garrantzitsua, eta ez piramidea amaitzea. Lehen motako gurasoek ahaztu egingo lukete piramidea eraikitzeak elkarrekin loturik eta erlazio naturik dauden urratsak ematea eskatzen duela; bigarren motakoek, oso bestela, nahiago dute haurrak galdetzea urrats batek hurrengo zein urrats eskatzen duen (dituen). Elkarrekintza egoerak zehazki definitzeak berebiziko garrantzia du, hortakoz, hezkuntzaren eremuan.

Izan ere, eta gorago adierazitakoa azpimarratuz, ikasleak jada badakiena edo badezakeena egitea proposa diezaioke hezitzaileak, eta horren ondorioz haurrak ez lioke inolako erakargarritasunik aurkituko burutu beharrekoari. Edo ikaslearen aurrezagutzak eta jada landuriko gaitasunak kontuan hartzeke, haurrak berez burutu ezin dezakeen eginkizun bat eska diezaioke berak bakarrik konpon dezan. Kasu horretan, ahalegin guztiak eginik ere, ezina sumatuko luke mutikoak edo neskatoak, eta etsipenera makurtzeko arriskua legoke. Hirugarren bide bat bilatu beharko litzateke, aipatutakoen ondorioz, hezkuntza eremuko esku-hartzea emankorra gerta dadin: haurrak jada badakiena kontuan harturik eta puntu horretatik abiatuz, eta uler ditzakeen argibideak eskainiz, eskatzen zaion eginkizunean

hurrengo pauso bat edo beste eman ditzala eskatu beharko litzaioke, horretarako eska ditzakeen argibide osagarriak edo laguntza gehiagarriak eskainiz, betiere. Kasu horretan bakarrik gerta daiteke nolabaiteko aurrerapena haurraren gaitasun psikologikoen garapenean.

**Ez da nahikoa elkarrekintza egoera definitzea**, horrekin soilik ez baita ziurtatzen elkarrekintza era egokian bideratuko denik. Elkarrekintza egoerarekin proposaturiko zehaztapenean aurreikusitakoa praktikan jarri orduko, haurrak edo ikasleak adierazi ditzakeen zeinu gakoei adi egon behar du hezitzaileak, beharrezko egokitzapenak une egokian moldatu ahal izateko. Izan ere, zeinu gako horiei esker jakinen baitu hezitzaileak haurrari edo ikasleari eskatu dizkion eginkizunak errazegiak, zailgiak edo aproposak diren bere gaitasunetan aurrera urratsak eragiteko. Ikaslearengandik sorturiko adierazpen gako horiekiko sentibera bada hezitzailea, aurrez proposaturiko egoera zehaztapenetan beharrezko egokitzapenak eginen ditu, burutu beharreko eginkizunak ikaslearentzat eraginkorrak eta sustatzaileak gerta daitezten. Egoera zehaztapenaren negoziazioa izena ematen zaio hezitzailearen aldetiko jarrera eta portaera honi.

Ikasleari bere gaitasun neurrien arabera ezartzen zaion eskakizun mailan, irakasle/gidariaren iaotasunak erabakiko du, neurri handi batean bederen, haurrak bere gaitasunen garapenean eginen duen aurrerapena. Ikasleak jada lorturik dituen gaitasunen arabera erabaki behar lirateke ezarriko zaizkion eskakizunak eta gero eta gorago dauden gaitasun mailak lortzeko eskainiko zaizkion laguntzak. Garrantzi handikoa da ikaslearen interesa mantenuko duten eskakizunak erabakitzea, eta gero eta egoera zailagoi aurre egiteko gai dela sumaraziko dioten jardunetan partaidetza aktiboa eskatzea. Eskakizunen eta laguntzen arteko erakabakikodukaslearen aldetiko ahaleginaren neurria. Eskolartzearen motibagarritasuna dago, beraz, hemen jokoan.

**Hezitzailearen eta haurraren**

**(ikaslearen) arteko harreman horiek hizkuntzaren bitartekari-tzaz gauzatuko dira**, hein handi batean. Eragin handia izango du hezitzaileak erabiliko duen esanahien unibertsoak ikaslearekiko harreman horietan. Izan ere, ikasleak aurkezten zaion esanahien unibertso horren giroan bereganatuko ditu esanahien zehaztasuna, kopurua eta erlazioa, hau da, aukeran dituen hizkuntza zeinuen bitartez gauzatuko ditu bere psikebarneko eragiketak. Ezin ahaztuko da, eragiketa psikologiko horiek lehenik helduagoekiko harremanetan psikearte-ko eragiketa bezala zertuko direla (hau da, ikaslearen kanpoaldean lehendabizi), eta eragiketa mota horietan lortutako gaitasun eta trebeziaren arabera izanen direla gero bere erara eta kanpo-ko laguntzarik gabe psikebarneko izae-raz moldatuko dituen eragiketak. Ikasleak jada lorturik duen gaitasunen maila eta aurreikus daitezkeen berehalako gaitasunen ezaugarriak kontuan harturik erabaki beharko ditu hezitzaileak elkarrekiko harremanetan erabiliko duen hizkeraren maila, zehaztasuna eta kode ezaugarriak. Hori guztia harremanen martxaren arabera, une oro ikaslearen ahalmenetara egokituz eta berregokituz. Ezin ahaztuko da hizkuntza tresna bat dela eta aldi berean baita baliabide bat ere.

Aurreko puntu horretan aitatutakoak bide emanda, **ikaskideen arteko harremanen garrantzia azpimarratu behar da** segidan. Hezitzailea eta ikaslearen arteko erlazioak oinarritzako badira ere, bigarren horren gaitasunen garapena ziurtatzeko oinarritzakoak dira, era berean, ikaskideen artekoak ere. Behin eta birritan aipatu dugunez, ikaskideen arteko harremanak oinarri dute norberaren arakatzea, zalantzan jartzea, galdetzea, informazio berriak bilatzea, ezagutza ezberdinen artean erlazio berriak sortzea eta antzeko jardura intelektual guztiak aurrez elkarrekin arakatzea, eztabaidatzea, arrazoitzea eta informazio berriak bilatzea. Elkarrekin eginiko prozesu horiek dira barneratutako prozesu moduan norberaren adimen egituraren geroago norberaren jardura bezala goi mailako funtzio



psikologikoak izenez ezagutuko ditugunak.

Ikasleak kideekin eta hezitzailearekin burutzen dituen jarduera konpartitu horietatik barneratutako jarduetarako bidea errazteko xedez, urratsen mailaketa bat eskatzen du Vigotskiren jarraitzaile eta ikerlari den Galperin-ek (1978). Hauek lirateke eskolaratze prozesuan zehar ikas jarduerak gauzatzeko orduan ezberdindu eta kontuan hartzeak liratekeen aldi nagusienak, orain artekoan adierazitakoarekin lotura zuzena dutenak:

- Eginkizunari buruzko errepresentazio egoki bat bideratu.
- Eginkizuna objektuak erabiliz burutu, elkarkidetzan lehenik eta geroago bakarka.
- Eginkizuna hitzez modu egokian adierazi kideei eta irakasleari, eta horien galderei erantzun.
- Horrela garatu eta moldatutako eginkizuna norberaren errepresentazio mental bilakarazi.
- Eginkizuna mentalki garatzen trebatu.

**Jardueraren zentzua berreskuratzen beharra dago** eskolaratze prozesuei

duten benetako garrantzia eskaini nahi baldin bazaie. Aurreko puntuan adierazitakoa gogoan izanik, elkarkidetzan burututako jarduerak dira geroago norberaren eragiketa barneratu bezala ezagutuko ditugun eragiketen oinarri. Barneratutako hizkuntza izanen da barneratutako eragiketarako erabiliko dugun baliabide eta tresneria nagusia. Hitzzen zentzua eta esanahi konplexuak adierazteko moldatzen ditugun esaldi moten zentzua (morfosintaxiaren zentzua) elkarkidetzan bakarrik geuregana ditzakegu; hitzei eta esaldi motei zentzurik emango badiogu, elkarrekin jardunaz bakarrik burutu genezake horrelakorik, ingurune, eginkizun eta aurkitu beharreko konponbide konpartituen markoan bakarrik har eta jaso baitezakete haiek zentzua eta esanahia.

Horretaz gain, ingurune objektu eta gertakariak guk gauza genitzakeen eragin eta aldaketen bitartez bakarrik jasotzen dute guretzako nolabaiteko zentzua, edo burutu nahi bai baina burutu ezinezko gertatzen zaizkigun eragin eta aldaketen bitartez. Gure jarduerak damaiete, beraz, zentzua eta esanahia ingurune objektu eta gertakari. Jarduna da, hortakoz, gure ezagutzen oinarritzko jatorririk garrantzizkoena.

**Dakargun arrazoibideak esanahiaren eta zentzuaren arteko ezberdintasunaz gogoeta egitera garamatza.** Ohiko irakaskuntzaren norabideak eraginda edo, hitzen eta kontzeptuen (objektu eta gertakari) esanahiaz zuzen jabetzea izan da ikaslearen aldetiko ikaste ahaleginen helburu nagusienetakoa. Hori eskatu izan zaio, behintzat, gehienetan. Esanahia, jakina denez, norberaren ezagutza egituretan berrietako osagai batek besteekin dituen lotura eta erlazioen bidez erabakitzen da: sagarrak, adibidez, landare batek (sagarrondoak) ematen duen fruitu (sagarrondoaren loretik datorrena) bezala hartzen du esanahia, edo bitamina ugari duten janarien arteko fruitu bezala. Pertsona batentzat sagarraren bi esanahiak ulergarriak izan daitezke, baina agian janari bezala zaio garrantzizkoa. Sagarraren izaera botanikoa aztertzea, ulergarria izanik ere, zentzurik

gabea gerta dakiok; sagarraren janari izaera aztertzea, aldiz, oso zentzuzkoa iduri dakiokkeen bitartean. Ez da zerbaiten esanahia norbait azterketa jarduerara mugitzen duena; aztergaiak aztertzailerentzat duen zentzuak erabakitzen du hori, A. Alvarez eta P. del Ríok (1991) gogorarazten digutenez.

Ikaslearen garapen kognitiboa ziurtatuko bada, beraz, zentzuzko jarduerak proposatu beharko zaizkio -zentzuzko guztiak esanguratsuak dira ikasleentzat- eta ez esanahia bai, baina zentzurik ez dutenak. Proposatutako jardueren (eginkizunen, konpondu beharreko arazo) zentzuzkotasunak erabakitzen du ikaslea besteekin burutu dituen jarduerak barneratzen eta bere egiten ahaleginduko den ala ez. Irakas/ikas saioen motibagarritasunaren arazoarekin du zerikusi zuzena ikasi beharreko gai eta edukien zentzuzkotasun izaerak.

## Ondorio modura


Vigotskiren ekarpen batzuk zirriborratzen ahalegindu gara hainbat orrialdetan zehar. Ikuspegi konstruktibista du autore errusiarrak ezagutzen moldakuntzari dagozkion kontuetan. Baina garrantzi handia damaie inguruko pertsonen garatze bidean aurkitzen den haurrekin (ikaslearekin) izanen dituzten harremani, horien izaeraren nolakotasuna baita erabakiorra ezagutzen garapenaren prozesuan. Harreman horiek izanen dira garapenaren eragile eta motore. Horretarako bete beharko liratekeen baldintza batzuk aipatu eta aztertu ditugu *Giza harremanak ezinbesteko baldintza dira garapen psikologirako* izenburua jarri diogun atalean. Baldintza horiek gauzatzen diren neurrian hasiko eta ahaleginduko da haurra (ikaslea) bere ezagutza egiturak sortzen, aztertzen, zalantzan jartzen, berregituratzen, informazio berriak bilatzen eta abar. Ezagutzen moldakuntza konstruktibista batek dituen eskakizunak dira horiek guztiak. Horretan asmatzen den neurrian izanen dira hezkuntza eta eskolaratze jarduerak benetan eraginkorrak haurren (ikaslearen) garapena bultzatzeko orduan.



# KUKU



S A I L B E R R I A



Joxe Panpin  
jostailu-saltzailearen  
kontakizun harrigarria



Inurri gorria  
eta inurri beltza  
maitemindu zirenekoa



Ipuin bihurri-bihurriak

Koloretan

8 urtetik gora  
edonorentzat





Hezkuntza eta  
berrikuntza azoka

ikazokak



00  
DURANGO

Maiatzaren  
18tik 21era